


J.I. PAUL ARZAK



EIBARKO SOZIALISMOA



EIBARKO SOZIALISMOA

J. I. PAUL ARZAK



KRISELU

EIBARKO
SOZIALISMOA
J. I. PAUL ARZAK

1978 Jorraila

EIBARKO SOZIALISMOA

© J. I. Paul Arzak

© L. Haranburu editorea

KRISELU

Alda. C. Sotelo, 26

DONOSTIA

Inprimatzen du

Eléxpuru Hermanos, S. A.

Zamudio-Bizkaia

D. L. BI-985-1978

I. S. B. N. 84-7407-043-0

Azala: Tororo

KRISELU

I

SARRERA

Eskuartean daukagun lan hau, hasera baten lizentziaturako tesi gisan planteaturik zegoen, honek berez dituen baldintza eta guzti. Delako tesiaren zati batzuk atera ditugu liburu honetara, hasera bateko zenbait atali ikutu batzuk eman ondoren.

Ahalik eta jende gehienera iristea eta aurkitu ditugun datoak zehatz ematea dira gure helburuak. Aldi berean, tesinaren ardatz den langile mogimenduari buruzko atala zabaldu eta aberastu egin dugu. Beraz, lehen hiru kapituluak, populazioari, industriari eta bizimodu kondizioei buruzkoak, baztertu egin ditugu, espozizioaren zati nagusienak mantenduaz.

Nolanahi ere, lanaren akatsik nabarmena bere lekeri gehiegizkoa dateke, Euskadiko markoan "Eibar" berezi eta bakar bat azaltzea hain zuzen, baina irtenbide gutxi genuen: Konparaketa zuzen edo okerxeagoak egin Bilbo inguruarekin edo eta konparaketa hoiek Espainiako estatuaren markora hedatu.

Ez batak eta ez besteak ez gintuen tiratzen eta mugak oso kontuan ditugularik ere, nahiago izan dugu, Gipuzkoako langile mogimenduaren historiografia bat sortuaz joan dadin bideak irekitzen has.

Ez gara monografiak gehiagi ugaritzearen zaleak baina herrialdearen edo nazioaren azterketa serioak egiten ez diren bitartean berriro ere lan baten izenburuaren eta mamia-
ren artean leize ikaragarriak egoten jarraituko dute. Baiezpen orokorrak beharrezkoak dira baina oinarri minimun bat dutenean. Bitartean hobe da abenturakerietan ez jardutea.

Lan hau, zenbait baldintza betetzen ez baditu ere, herri mailako zenbait ondorioren iturri eta lan berrien eragile izan daiteke, horrela Nerbioi hibaia-
ren inguruan sortu den monopolioa deseginaz.

Baina ez pentsa lan honekin Eibarko langile mogimenduaz dena esanda utzi dugunik. Sozio-hauteskunde eta udaletxe politika alderdia sakonago azter daitezke eta gainera beste arazo batek ere mugatu gaitu lana burutzera koan. Ezin izan dugu Eibarren argitaratzen zen "Adelante" aldizkariaren ale bakar bat ere aurkitu ahal izan.

Cillan Apalategi-k aipatzen du bere "Sociología electoral de la provincia de Guipúzcoa (1900-1936)" lanean "Adelante, Eibar 1900-1910" aldizkaria. Aldizkaria aurkitu nahiz, Amsterdam-go Gizarte Historiako Instituto Internazionaleraino jo dugu baina alperrik. Beraz, Cillan jauna-
ren lorratsari jarraiki aldizkari hau aurkituko begenu, lan honek berrikuspen bat beharko luke.

Donostia, 20-XI-75

II

EIBARKO LANGILE MUGIMENDUAREN HASTAPENAK

1897. urtea oinarrizkoa da Eibarko historia sozialean. Abuztuaren 6an hasi zen ezagutzen den lehendabiziko greba (1). Hasi eta astebetera Pablo Iglesias eta Perezagua mintzatu ziren Salón Teatro (2)-ko Tribunatik. Irailean, Agrupación Socialista delakoa sortzen da, Beaskoetxea lehendakari eta Pedro Chastang bizelehendakari direlarik.

Gertaera hauek zera esan nahi dute: Eibarko langile mugimendua, ordurarteko bideak utz eta bide berrietatik abiatzen dela.

Aipaturiko garaia baino lehenagoko berri gutxi jaso ahal izan dugu. Termes-ek (3) dionez, ba ziren Eibarren

(1) La Voz de Guipúzcoa, 25-IX-1897...

(2) CELAYA, P. *EIBAR. Síntesis de monografía histórica*. Sn. Sn. 1970, 61

(3) TERMES, J. *Anarquismo y sindicalismo en España. La Primera Internacional 1864-1881*. Ariel, Barcelona, 1971, 294.

1873. go Maiatzean "Asociación Internacional de Trabajadores" delakoari federatu gabeko langile elkarteak. Gremio tankerako elkarte batzuetaz ariko da noski, nahiz eta hauek gure ustez larogeitamargarren urtearen inguruan sortuak izan. (4). Agrupazioaren aurretik 1890. inguruan, Armagile Gremioa sortu zen. Baskulagile, kaxagile, guardamontista, kanoigile, guarnidore, pulitzaile eta grabatzaileak zeuden bere barnean. Era ezberdinetako jendea, ugazabak, bere kontura ziharduten langileak, langile soilak, ikasleak etab... bere barnean egoteak, elkarte honen gremio izakera salatzen du. Bere zeregina, armagintza fiskalizatzea da: ikasleen kopurua izendatu, hauek ofizial izatera igotzeko esaminak erabaki, salneurrien tarifak, zigorrak lege hausleentzat, etab...

Eibarren eskulanaren aintzindari izan ziren montatzaileak bihurtu ziren gremio honen kontrariorik haundienak. Sozialistek jakin zuten arazo honi probetxua ateratzen.

Gremio hitzari artesanak kutsua badario ere, bere izakera aldatuaz joan zen industriaren aurrerakuntzaren arauera. Gremio ahuek, errebindikatze jarrerak hartzen joan ziren XIX. mendeko azken hirurenean, herriko federalisten eraginez zihur aski. Aurretiko Errege Etxe edo "Casas Reales" delakoen zeregina oso ezberdina zen. Hala deskribatzen zituen Iturrioz-ek (5).

"Kanoigileak, kaxagileak, aparejogileak, giltzagileak eta fusilak dituen beste zatiak egiten zituzten langileak

(4) CELAYA. Op. Cit. 56

(5) La Voz de Guipúzcoa, 25-IX-1906.

gremiotan bildurik zeuden. Lana eskatu eta banatzeko, gremio bakoitzak "diputadu" deitzen zitzaion ordezkari bat zuen. Langile bakoitzak trebetasun maila bat zuen (asientoa) eta hilabeterako lana (mesada) hartzen zuenean, trebetu gabeko beste langileei banatzen zien lan hori. Irabazien banaketa ere, modu berdinean egiten zen.

Lana ugari zenean, langile tituludunak titulugabekoei banatu egiten zien baina lan eskasia zenean, tituludunek berentzat hartzen zuten zegoen guztia eta titulugabeek batere gabe gelditzen ziren."

Kontuan hartu behar den faktore nagusia, industriaren hedapena da. (6) Bustindui-k ematen dituen datotatik, Zelaiak 1864rako ematen dituen batzuekin konparatuko ditugu:

1864:

"Orbe Hermanos" zen lantegirik haundiena 50 langilerekin eta 4 hurrengoak 10etik 30era bitartean zuten. Osterantzekoak oso txikiak ziren, familiarrak gehienak, aldi berean langile eta ugazaba zirelarik. (7).

1890.ean hasten da elektrifikatzen prozesua.

1893:

105 langile ditu Orbeak eta 50 Juaristik. Produzioari dagokionez, 1.000 armatik gora egiten dituzten 34 lantegi daude. Lehen gaia esku bakar batzuetan egotea ebitatzeko "Aurrera" elkarteak sortzen da eta 95.etik 100.000 kilo inguru burdina-urtu egingo ditu urtean.

(6) *Gipuzkoako merkatal ganbara*, Eibarko armagintza Industriaren abiakuntzaz artikulua bat prestatzen ari da.

(7) CELAYA. Op. cit. 33

Larrañaganean lau gurpil hidraulikoren bidez egiten dute lan eta gauza oso bitxi bat ikus dezakegu bertan. Hauetako bi gurpilen indarra polea batzuen bidez aprobetxaturik, alokatu egiten zaio zenbait industrialari horrela lan banaketa haundi bat lortzen delarik. (8).

Beraz, ez zen derrepenteko saltorik eta aurrerakuntza bortizik ezagutu. Gero eta lantegi haundiagoak sortzen dira baina artesanalekin oinarrian tinko jarraitzen dutelarik. Lantegi txiki erdiindependentiak ere ugalduz doaz —60 bat edo 1903an (9)— eta inguruko herrietatik jende ugari dator Eibarrera bizi izatera. Etorkin hauek zerikusit haundia izan zuten haseran aipatu dugun greban. Horrela joan ziren gauzak:

Greba hau Kintana anaien lantegian izan zen. Hasera baten Mexikotik armak ekarri bakarrik egiten zuten baina geroago, bertan ere armagintzan hasi ziren. 1896ean, errebolber fin eta eskopetagintzan Eibarko lantegi hoberentzat jota zegoen. Grebaren arrazoia zihur-zihur ez badakigu ere, dirudienez lan sariaren beheratzea izan zen, aldi berean bi txandatako lan-jarraitu bat inposatu nahi zelarik. Gainera inguruko eskualdetatik kualifikatu gabeko eskulan merkea ekarri zuten lan errazetarako.

Greba honetaz arduratu diren idazleek, geroko sozialista hedapenerako garrantzi haundia izan zuela diote. Dena dela, erresistentzia elkarrekin badituzte ordurako 300 bat elkartekide eta ez dira oraindik UGT-koak.

(8) BUSTINDUY, N. *La industria guipuzcoana en el fin de siglo*. Sn. Sn. 1894

(9) MINISTERIO DE INDUSTRIA, etc. *Estadística industrial de Guipúzcoa*. Madrid, 1905.

Eskualde guztiak lagundu zion grebari, Abuztuaren 21ean grabalarientzat batu ziren 2.100 pezetek garbi adierazten dutenez. Egia da baitaere Eibarko lantegietako zenbait ugazaba greba bultzatzen jardun zela "Zenbait ugazabak jai eman diote langileei Kintanaren kontrako manifestazioetara joan ahal izan daitezten" (10).

Hiru hilabeteren barruan "Hiru manifestazio kalean, aipaturiko sozialisten mitiña, grebalariek antolaturiko bi mitin eta armagileen batzarrean sortu zen 5 ordu t'erdiko burrukaldi bat" ikusi ziren Eibarren. (11).

Jakina, Ugazaba jendeak momentu honetan izan zuen nahasmen eta interesak ez ikuste hau laister argitu zen eta kaleratzeak eta zerrenda beltzak berehala etorri ziren. Hala ere, ugazaba elkarte edo sindikato bat sortzeko asmoak ez ziren 1905 arte gauzatu.

Beharbada zorrozkeria adibide aipagarriena Orbeatarrena dateke. Orbeaneko behargin guztiak Orbeazaleak behar zuten izan, politik zaletasunak zuen garrantziagatik edo sozialista bakar bat ere ez zuten onartu Lehen Gerra Mundiala amaitu zen arte, giroak eraginda, sindikatoak indartu al atzerakoi egoskorrak gainditurik gelditu ziren arte alegia. Isilpean afiliatzen ziren langileak, alkahueteen bidez bilatuak eta gero kaleratuak izaten ziren. Behin baino gehiagotan intentatu zuten ugazaben arteko akordioen bidez lista beltzak erabili eta praktikan jartzea. (12).

(10) CELAYA. Op. cit. 62

(11) CELAYA, Op. cit. 61,62

(12) ECHEVARRIA, T. *Viaje por el país de los recuerdos*. México, 1968. 106

III

LANGILE MUGIMENDUAREN LEHEN AROA

Armagileen Gremioan lan eginaz eta beronen estruktura aprobetxatuaz jarraitu zuten sozialistek. 1898.go Urrian, Gremioko Batzarrak eskaera hauek egiten ditu: eguneko lan orduak 10 eta erdiraino jaitea, zenbait lantegitan inposatzen diren % 6 eta 10eko beherapenak kentzea eta ordu extrak % 50 gehiago ordaintzea. Eskaera hauen ukamenetik etorri zen Eibarko lantegi haundienetako zen "Garate, Anitua y Conpania"-ko greba.

Kontura gaitezen Eibarko esku langintzaren jatorriä zera zela: Leku berean eta lan era berdintsuekin langile multzo bat bildu merkantzia bakar bat egiteko; Lantegi txikiakiko bentaja haundiak ditu lan era honek: Produzioaren maiztasun eta salmenta hobea, lan tresnen erabilkera hobea gastuak urritzen direlarik.

Eskualdean hain sustraiturik zegoen lan banaketa gehitu edo eta mantendu behintzat egiten du lan era honek. Industria txikiak ugari dira eta industriaren krisi aldietan

hauek, industria haundiaren "zartada eusle", babesle gisan erabiliak izango dira.

Krisi algi hauetan eta lehengo berri emaileak dionez. "Lan eskasia alditan, lantegia itxi beharrean aurkituko direla diote ugazabek baina langile gixajoenganako hainbesteko maitasuna dutenez gero, lana ematen jarraituko zatzazkie, hori bai jakina, (% 5, 10, edo 15eko beherapenez, baina hau, sasoi hobeak etorri bitartean bakarrik). Pistola eta errebolberren eskabidea datorkigun bezain laister, beherapenak kendu egingo ditugu. Hola mintzatzen ziren ugazabak garai hartan.

"... baina aipaturiko sasoi hobeak badatoz, estranjeriako konpetentziarik ez dago frankoak gora egin bait du eta lantegiek jo eta ke dihardute lanean eskabideei erantzun ezinik. Dirua farra farra sartzen dute jabeek baina langileek beherapenekin jarraitzen, ugazaben hitza, haizeak aidean eraman zuen orbela bailitzan.

Baina langile elkarteek ez zuten Gremioengandik antolakera bakarrik jaso baizik eta baita haserako borroka modu eta motiboak ere. Horrela 1899.ean kaxagile, baskulagile eta pulitzaile elkarteak bildu eta zera erabakitzen dute: "herrian egiten ziren arma guztiak aipaturiko elkarten ikurrak eraman ditzatela marrazturik eta ugazabek erabaki hau onartzen ez bazuten, ez zutela lanik egingo".

Bestalde, egoera oso berezi baten bizi ziren elkarte hauek Eibarren, ez bait zen erraz langile eta ugazabak bere barnean bereizten, klase ikuspegi zorrotz batetik begiratu ezean (eta ez zen begiratzen). Elkarte berberaren barruan langilea eta bere ugazaba zeuden, aldi berean beste ugaza-

(1) La lucha de Clases. 27-X-1898

ba haundiago baten enpliau ziren ugazabak hain zuzen. Beraz nahasketa askotarako bide ematen du egoera honek. Egoera hau aitzakiatzat harturik, Iturrioz eibartar errepublikanoak gogorki erasotzen ditu elkarte hauek, sozialistekin bat eginik zeudela eta hauen erabakien kontra joatea alterrikakoa zela esanaz.

Lehen aipatu dugunaren ondorio bat da noski T. Etxebarriak diona, "Eibarko langile eta sozialista elkarteek, klase ikuspegi soila baino kriterio zabalago batez jokatzeko zuten herriko arazo guztietan". "Ardura sozial batek eraginda, gainditze bat ematen zelako" (2). Egile berak dienez "Bai gremioek eta baita ondorengo Langintza elkarrekin Federazioak ere herritar kutsu bat zuten, besteekin zerikusit gabea, nahiz eta beste batzuetakoekin solidaritatea praktikatu". (3).

Tarifen erregulatzea, jasotzea eta normaltzea izan zen elkarrekin lan nagusia.

Ez dakigu ugetistek eta sozialistek zenbateraino jokatu zuten destajuko lanaren kontra. Beharbada hasera baten hala egin zuten baina gero jarreraz aldatu beharrean aurkitu ziren Bizkaian bezala, langileek aldeko zirela ikusirik. Alzola-k eta ahoz jaso ditugun iritziek gauza berbera diote. Zera dio batek "sozialistek soldataren alde borrokatzen zuten baina ez zuten inposatu nahi berehala, lantegi txikietan sortzen zituen eragozpenegatik".

Sozialista ekintzen alor bat, propaganda mitinak izan ziren. Agrupazioa sortu ondoren egin zuten lehendabizi-

(2) ECHEVARRIA. Op. cit. 123

(3) ECHEVARRIA, T. *La experiencia socialista en España. Vista desde mi pueblo*. México, 1966. 27

koan, soldadutzaz eta bere trukaketa legeaz mintzatu ziren. Onarturiko erabakiak hauek izan ziren: "Langileak Eibarko Salon Teatroan bildurik zera eskatzen diote Gobernuari: bazter dezala soldadutzaren diru trukaketa eta Kuba eta Filipinasera aberatsen semeak ere bidal ditzatela eta ez pobreen semeak bakarrik".

Ondorengo mitinetan, Bilboko hauteskundeetan izan diren azpijokoetaz, liberal eta errepublikano alderdiengan konfiantzarik ez jarri beharraz, klase borrokaren esanahiaz etab... mintzatuko dira.

PSOE-ren sozialismoa eskualde osora zabaldu nahirik, batzarrak egiten dira Elgoibar, Eibar, Ermua, eta Bergaran.

Hauteskunde gaia ere aurrengo mailan dabil. Eibarko Agrupazio Sozialistak ez du inorekin elkartzetik nahi eta diogunaren froga gisan, 1899.go Uztailaren 8an Zearruzabarrutia eta P. Gallastegi alderditik jaurtiak dira 3 "azkenengo udal hauteskundetan burges kandidatura bultzatzeagatik". Zerruzabarrutia Agrupazioko bokal zen Otsailaren 8an egin zen berriztapenaren geroztik.

1900.go Uztailean, Junta Local de Reformas Sociales delakoa sortu zenean Eibarren, modu honetan lortu zuen PSOE-ek gehiengoa.

"Lehendabiziko batzarretik ikusi zuten gure ordezkariak gehiengoa zutela. Probintziako ordezkari kargua eskuratzeko borroka gogorra sortu zen eta ugazabek berehala elkar hartu zuten, nahiz eta politik egoera ezberdinetakoak izan.

Baina gure lagun Mendikuteri esker, langileek gehien-

(4) ALZOLA, P. *La cuestión obrera* hitzaldia.

(5) Ikus Termes, op. cit.

goa zutela ikusi zuten berehala. Mendikute, nahiz eta bere langintzako elkartekoa izan, ugazaba da eta ordezkari hautatua izatearen bentaja izan dugu. Azkenean atzeraka egin zuten eta Gisasola laguna izendatu zen kargu hartarako. hartarako.

“Barrutia idazkaritzarako izendatua izan zen eta honenbestez amaitu zen lehen saioa”.

Baina ugazabak langintza elkarte hauen barnean egote hau ez zen beti onerako. Hor dago elkarte hauen baitan Iturrioz-ek eraman zuen kanpaina antisozialista.

Arrazoi honengatik edo eta Barrutiak berak 1899ko haseran bota zuen proposamenaren eraginez, Armagileen Gremioa deseustu egin eta bere orde, Langintza Elkarteen Federazioa (Federación de Sociedades de Oficios) Langileen Batzokia (Centro Obrero) sortu ziren.

Bien bitartean sozialistak dezente ugaltzen dira probintzian zehar. Irunen, Beasainen, Soraluzen, Bergaran, Tolosan, etab... sortzen dira agrupazioak baina Eibarkoak eta Donostiakoak bakarrik euki zuten halako jarraipen bat, besteak oraintxe bai, bihar ez eta etzi bai ibili zirelarik. Baina harrigarria da lehen aipatu ditugun bostetik hiru 1.go Internazionalaren eraginez sortuak izatea eta beste biak berriz, armagile arloan kokatuak egotea. Dena dela, Donostiakoak izan ezik bizitza ahula izan zuten besteek.

Zera dio Fusi Aizpuruak Gipuzkoako langile Mugimenduaz mintzatzerakoan.

Eibarrez kanpo, beste industria herrietan (Tolosa, Pasaia, Errenderi etab...) langile sindikato eta batzokiak beranduago sortu ziren eta eragin kaskarragoa euki zuten. 1910eko berriek diotenez, langile mugimendurik ez ia erabatekoa zen. 1911.ean 1200 langilerekin Gipuzkoako lan-

tegi haundiena zen CAF-eko zuzendariak zionez "Langileak pozik ari dira eta ongi ateratzen dute bizimodua". "Grebak ez dira pizten" zion. Arrasateko "Unión Cerrajerako langileetaz —700 1911.ean— "grebarik sortzen ez duen jende menpekoa" zela esaten zen. (6). "El Socialista"-ko berri emaileek era gauza berbera zioten. Errenterikoa, "Errenderi bezalako herri industrial baten —2500 langile— langileen artean hain elkarte giro gutxi ikusteaz" kexatzen eta harritzen zen". Langile organizazioen arrastorik eza" ikusten zuen Enrike de Francisco-k Tolosan 1910. urtean. (5 bat mila langile zituen, erdiak papergintzan). 1904. urtean Aldaco-k Unamoneri idazten zionez "Eibarren eta Donostian izan ezik ezin da Gipuzkoan sozialistarik dagoenik esan". (7).

Egile beraren ustez, egoera hau "harreman industrialen estabilitatearen fruitu da" Lehen Gerra Mundialera arte...

"... Probintziaren industrial bereiztasunaren ondorio bat izan zen, industrial multzoak oso sakabanaturik bait zeuden eta industria motak ugari. (8).

Eibarren alderantziz, federazioko elkarteak goraka doaz poliki poliki. 1902.ean 600 bat bazkide izango zirela jotzen du Zelaiak. (9). Ikus berriz 1903ko bukaeran.

(6) 1893. urtean, Arrasateko eta Aretxabaletako sarrailangileek egin zuten Gipuzkoako lehen greba.

(7) FUSI AIZPURUA, J.P. *Política obrera en el País Vasco*. Turner, Madrid. 179, 180.

(8) Laister argitaratzekotan da Gipuzkoaren industrializatzeari buruzko Monserrat Garate-ren tesi doktora. Lan hau Kriselun eskuetan zegola argitaratu dute Garaten tesisa.

(9) CELAYA. Op. cit. 66

Federazioa osatzen zuten elkarteak	Elkartekideak
Kaxagileen elkarteak	110
Pulitzaileen elkarteak	46
Baskulagileen elkarteak	190
Grabatzaileen elkarteak	26
Konpontzaileen elkarteak	28
Kainoigileen elkarteak	29
Pistolagileen elkarteak	340
Giltzagileen elkarteak	50
DANERA	819

Elkartekide proportzio ikaragarri hau (beste leku batzuetan % 5 baino gehiago ez ziren izaten) "Adelante" astekaria argitaratzeko oinarri bihurtu zen. Hasera baten Barrutiak zuzentzen zuen. Gorabehera asko izan zuen eta 1902.ean laga egin behar izan zioten argitaratzeari. "Haundikien presioa zela medio, irarkolak ezekoa ematen bait zuen". (10). 1904.ean; 1906.ean; 1908 eta 1914an ere agertu izan zen tarteka tarteka eta 1920an ere zenbait ale.

1903.ean lortu zuten sozialistek beren lehendabiziko kontzejala 111 botorekin, baina inpugnatua izan zen eta ez zen 1904.go Azarora arte karguaren jabe egin. Bere kandidatura alderdi sozialistarena izan zen, errepublikanoekin lotu gabe jokatu bait zuten. Baina udaletxera sartu eta lehendabizikoz hitz egin zuenean, errepublikano-sozialista gutxiengoaren izenean mintzatu zen, "La Voz de Guipúzcoa"-ko berri emaileak dionez. 1905eko hauteskundeak gerturatzean, berriro ere bi alderdi hauek bereizi egiten di-

(10) La lucha de Clases, 22-II-1902

(11) Fusi, op. cit. 491. Berak 188 botok ematen ditu.

ra. 1906.ean batera jokutzen dute atzera eta baita 1907ko probintzia mailako hauteskundetan ere.

Geroago Iturrioz-ek ez zuen nahi izan bateratze hau desegiterik, Eibarko sozialistak bere alderdiaren zuzendaritzari jaramonik egin gabe elkartu zirela errepublikanoekin esanaz.

Grebak ugari dira eta langintza elkarteen federazioa aurrerantza doa.

Eibarren deserriraturik dagoen Tomas Meabe-k hasteko 134 elkartekide dituen "Juventudes Socialistas" delakoan sortzen ditu.

Badirudi oraingoz sozialisten eragina haundiagoa dela lantegi txikietan haundietan baino. 1903-XII-1-ko "Revista socialista" delako berri emaileak dionez, Eibarko industriak bi alor ditu: arma motzena eta arma luzeena. Arma motzen produzioa lantegi haundietan ematen da. Eskopetak berriz, lantegi txikietan. "Eskopetagile gehienak elkarturik daude baina pistolagileak % 40 bakarrik.

"La Voz de Guipúzcoa"-ko berri emaileak dionez, langile gehienak baserritar jatorrikoak ziren. "Elgeta, Markina, Elgoibar, Soraluze eta eskualdeko beste herri batzuetakoak dira, baserritarrak batipat eta baita Bilbao inguruko lantegietako hondakinak ere. Gezurra badirudi ere, ongi elkar hartzen eta osatzen ziren itxura batera hain ezberdinak ziren elementak". Kronika hau 1905ekoa da, errepublikano eta sozialistak bereizirik zeuden hauteskunde aurrekoa. Berri guztiak diotenez, etorkinek garrantzi handia izan zuten UGT-ren oinarrian.

Gertaera honek berez ez du ezer harrigarrik baina bai Eibarrera zihoan inmigrazioa euskaldun jatorrikoa izateak,

Garcia Manrique-ren (12) lanean garbi agertzen den bezala. Lan honetan, nahiz eta egile berak ere hutsune haundiak ikus, garbi gelditzen da Gaztelako inmigrazioa ez zela 1912ra arte hasi, lehen aro honen akaberan hain zuzen.

Dezente sustraiturik ugetismoa beheraka hedatzen da Gipuzkoan 1915tik aurrera.

Ez dugu datorik Eibarretaz baina bai herriko "Junta local de Reformas Sociales" delakoko langile ordezkarien hauteskundetan 410 boto izan zituztela unanimitatea Centro Obrero-an. Bestalde 1904an 1125 elkartekide dituen federazioa, 900era jeisten da 1914.

Datoak gutxi gora beherakoak badira ere, garbi ikusten da beherakada haundi bat izan zela, eta hori 1914.a errekuperatzen aroaren barnean dagoelarik.

Arriskutsu da aro honetaz mintzatzea, "La Voz de Guipúzcoa" besterik ez bait dugu iturritzat, dena dela, sozialisten eta errepublikanoen arteko harremanak onak zirela garbi dago. Baita sindikalgintza moteldu egiten dela eta bai sozialistak eta bai ugetistak solidaritate ekintzetan murgiltzen direla ikusten da.

Edozenbat mitin dago, Marruecos-ko gerraren kontra, herri lege proiektorearen kontra, Terrorismo legearen kontra eta Ferrer-en alde, etab... 1910.ean Bilboko grebalariekin Solidarizatzen dira. Grebak irauten duen bitartean, beren semeak Eibarrera bidal ditzatela eskatzen diete grebalariei. Tren-gizonekin 1911.ean etab..., baina guzti hau, bertan grebarik egin gabe.

(12) GARCIA MANRIQUE. *EIBAR. Inmigración y desarrollo urbano e industrial*. CSIC: Zaragoza, 1961.

Soldatak ez dute aro honetan gorakada haundirik egiten. Destajuko lana nagusi denez, langilea ugazabari oso lotua aurkitzen da eta Eibarko industriaren hazkundera etengabea eta gorabehera kaltekorik gabea da. Berri emai-leek diotenez, "krisi aldi normalak laburrak eta ondorio gutxikoak dira". Arma motzak arma luzeei aurrea hartzen diete garai honetan. Behar beharrezko diren artikuluen salneurriek ere ez dute gorabehera haundirik, hurrengo aroarekin konparatuaz gero behintzat. (13).

Batenaz beste, esan genezake lanari zeharo emanda dagoela Eibar eta salto zakarrik gabeko egoera hau dela bide ekintza batzuk ematen direla eta baita udaletxe mailan ere. Lan kondizioen hobekuntzari esker, birikietako gaitzez hiltzen direnen tasa jeitsi egiten da: 1901ean 1000tik 4,7 eta 1911-1915 aroan 1000tik 3,45. Gainera errepublikanoek udaletxe mailan abiatutako erreformaren ondorio gisa, osasun alorreko ekintzak dira agirienak. 1910ean, "Jardín Galería de Convalecientes" delakoaren sorketa, Eibarren sortzen diren produktuen fiskalpena, (bai sozialistak eta bai errepublikanoak ikaragarri ahalegindu ziren); urzikinen erretenen hedapena; Tifusez hildakoen gutxitzea (14), aski sendagile jende, etab... Alderdirik beltzena, etxebizitzarena zen noski: 1910ean ere, lurra urri zen Mujikak dionez, eta ondorio bezala, etxe-bizitzak oso garesti. Etxe merkeak eraikitzeke proiektuak 1912.ean

(13) Ikus grafikoak

(14) Eibarko Artxiboa. A-5-8

(15) Gipuzkoako industrian matrikulak. Probintziko Artxiboa. 1902-1924

(16) Op. cit. 302

hasten dira, ditugun berriek diotenez eta sozialista gutxiengoko kontzejalek zera proposatzen dute (17):

“Etxe merkeak eraiki eta 30 epetan, urtean 383,34 ordainduaz, etxearen jabe egitea. Eskubidedunak hauek dira:

- Urteko 2.000 pezeta edo gutxiago irabazten duten langileak.
- Jabetasunik gabekoak edo eta eguneko pezeta bat baino balore gutxiagodun usufruktudunak.
- Adinez nagusiak eta familia buruak.
- Herrian gutxienez bost urte segidan bizi izandakoak.
- Portaera zintzodunak.”

Lehen esan dugunez, 1907.go Otsailaren 3an, PSOE-ren estatutuek ez zeudela kontra eritzi ondoren, sozialistek, errepublikanoekin elkartzea erabakitzen dute hauteskuntetarako. Egun hontatik aurrera, apaizen kontrako eta hauteskunde aurreko mitinen bidez, bi talde hauen arteko harremanak hestutu egiten dira. “La Voz de Guipúzcoa” egunkariak, Madinabetia sozialista liderrak urte hartako Maiatzaren 1ean esaniko hitzak dakartza. Berak dionez, Maiatzaren bata langile guztien eguna da eta ez borroka egun bat. Aldi berean, epe jakineko iraultzaileei iseka egiten die.

Udaletxe mailan, Eibarko sozialisten buru errepublikano gutxiengoaren ahots den Amuategi-k ospe haundia hartzen du. Parte haundia izan zuen osasunaren aldeko eta zezenen kontrako kanpainen eta batez ere eskoletan haurrei ematen zitzaien tratu txarren eta berauetan eta Asiloan nagusi zen klerikalismoaren kontrakoetan. 1912tik

(17) E.A. C-5-13

aurrera, garrantzizko leku bat hartzen du Armeria Eskolak.

Osasun arazoa, benetan inportantea izan zen Eibarren. Udaletxeak XIX. mendearen bukaera aldera jarritako etxetarako ur zerbitzu eta urzikinen bideak ongi funtzionatu izan zuten, keja batzuk gora behera. (18). Baina lan honek aztertzen duen aro osoa, birikietako gaitzaren zigorpean dago. 1901etik 1920ra arteko epean, gaitz hau izan zen % 21,16 heriotzen eragile zuzena eta 15 urtetik 50 urte bitarteko jendearengan berriz, % 52,4rena.

Birikietako gaitzez hildakoen tasak hauek izan ziren (19).

1901-1905	1000tik	4,74
1911-1915	1000tik	3,45
1916-1920	1000tik	2,8

Gaitzaren eragile nagusia lan kondizioak ziren dudarik gabe baina halatan ere, badirudi kondizio hauen aurka ez dela inor altxatzen. 1926an, "El Liberal" egunkariko berri emaileak idatzirik aurkitzen dugu lehen protesta. Sozialistak, birikietako gaitzari aide osaketa bat emateko 1910ean sortu zen "Jardín Galería de Convalecientes" delakoaren zuzendaritzan mulgidurik aurkitzen dira.

Sanitate Batzarrak eginiko txostenak zera dio: (20) "Armagintza ez da beste leku itxiko edozein lan mekaniko baino kategorriagoa osasunarentzat" baino gero pulizai-leen eta kaxa konpontzaileen bezalako kasu konkrituak aipatzean: "Metalezko zatien (burdina eta galtzairua) eta abiada izugarrian dabilen polea baten artean sortzen den

(18) E. A. A-5-8

(19) MARTINEZ SASTRE, *Geografía Sanitaria de Eibar*. Zarauz 1954-155

(20) E. A. A-5-8

igurtzimendu bortitzak, luzaroan aidean gelditzen den metal hautsa sortzen du eta baita brilloa ateratzeko erabiltzen diren beste sustantziak ere. Metal hauts hori, lan horretan diharduenak arnasten du eta askotan, bentako andrakosisak sortzen zaizkio. Andrakosis hauek neumonia kronikara jotzen dute, pusilo haundiak sortzen direlarik. Pusilo hauek lehertzen direnean, leizetxoak gelditzen dira, horrela gaixoaren ahalmen organikoa txikiagotzen delarik eta birikietako gaitzen jermenari lurra egokitzen zaiolarik”.

Gainera, pulitzaileak lantegietako “leku txarrenetan jarririk daudela esaten digu eta metal hautsa urruntzeko ez zela sistimarik erabiltzen eta lanagile banaka batzuk bakarrik erabiltzen zutela mozorroa”, dio. Baita, zenbait lantegietako haizegailuak jarri berriak direla eta nikelatzailetza bezalako lanak ezema sortzen duela aitortzen du.

Bestalde, produktu motek sortuko zuten zenbait arazo, baina Sanitate Batzarrak ez dio ezer gai honetaz. Garai hartako egunkariek diotenez, lantegien arma probatokiak sarri aldatzen ziren lekuz. Lantegi bakoitzak berea izan ohi zuen eta ez kondizio onenetan sarritan ezbehar ugari gertatzen zen lantegi barruan armak erabiltzeagatik. Kontu izan Eibarko armagintzak kalitateari baino kantitateari gehiago begiratzen ziola eta hargatik, arriskuak ere ugariago zirela.

Berriek diotenez, arma istripuz hildakoren bat eta zenbait zauritu izaten zen urtero mende honen lehen hamar urtetan.

Geroago, hildakoak gutxitu egiten direla badirudi ere, “El Liberal”eko berri emaileak zera eskatzen du 1922an: “Zauritu etxe edo gela bat sortua izan dadila, era guztietako ezbeharrak ia egunero ematen baitira”.

Lantegi pilaketa ikaragarria zen. Zera dio Iturriozek 1911ko Eibarri buruz: "Astegunetan bakarrik bizi izan daiteken herri industria tankerako herri lehor bat da Eibar eta jai egunetan jendea herritik urruti doa ihesi", esaten du.

Talde elkarketa honen beste borroka leku bat, heziketa izan zen, baina borroka, heziketaren hobekuntzara bideratua egon zen eta ez eskola leku berrien sortzera. Amuategi-n kanpainak, tratu txarren eta erlijioaren derri-gortasunaren kontra zuzendu ziren. Aristondo, kontzejal errepublikanoa, Amuategi-ren kanpainaren kontra egon zen (21). Ferrer-en ajustizaketaren ondoren, elkarketak, eskola razionalista bat sortzeko asmoa atera zuen baina ez zen errealitate izatera iritxi. (21).

1913an, Amuategi-k aurkezturik, hau zen elkartetaren programa:

"Hazienda publikoa indartu eta tinkotu, langileen-tzat etxe berriak eraiki, garbitoki mekaniko publikoak, herria dotoretu, Alfonso XIII. enparantzako erreforma lanak aurrera eramanez, 800 pezetatik gorako presupuestodun obrak lehiaketara atera eta lanak eta lan gaiak berdintasunez banatu, gremioetako zerrenden arauera, txanda zuzen zainduaz".

"Politika alorrean, udaletxe autonomia. Korporazioak berak hauta ditzala bai alkatea eta baita benefizientziako Batzarra ere, Aguretegi rejionaletako erregelamenduek diotenaren arauera".

(21) Kontra irten zela esatean, kontzejal hark gisa hontako argudioak erabili zituela esan nahi dugu "guretzat ona izan zena zergatik ez da gure semeentzat izan behar".

(21) 1919an Mediavilla-k zuzenduriko eskola bat sortu zen eta bertaratu ziren gehienak, sozialisten seme alabak ziren.

“Sozial alorrean, lehen mailako irakaskintza, eta Eskola Armeriako irakaskintza hobeagotu, haurrentzako udalekuak ugaritu, Zahartzarorako pensioak, Instituto de Previsión delakoarengandik kontratatu, eguneko lan orduen maximuna eta lan sarien minimuna erabaki, etxe merkeen proiektua aurrera eramanean, legeak eskaintzen dituen onurei helduaz...”

Armeri Eskolak izakera berezi bat izan zuen, baina ez gara orain bere “gurasoak” errepublikanoak ala sozialistak izan ziren eztabaidatzera sartuko. Bere helburuak argi eta garbi jakin araziak izan ziren zabaldu zen egunean: “Ezauguera teoriko-praktiko multzo baten jabe eta armagintza industriara sistematikoki zuzenduriko langile egokiak sortzeko da bakarrik. Gure lantegietan oraindik irauten duten praktika zaharkituak utzi eta metodo berriak inposatuko dituzten lehen mailako lan soldaduak sortzeko da soilik. Eta erregelamenduak dionez, honen zeregina ez da hortik aurrera pasatzen, zeren eta ofizialak eta industrietako Estadu Nagusia sortzeko, ba dira maila nagusiagotako beste ikastegi batzuk”.

Langileen aberasketa teoria honen arazoia, hizlariaren iritziz, aurrerakuntzari teknika aldetik egokitu beharra da. Industriaren oinarri orokorretara, eta bereziki bere langintzaren “teknikara”, langilea ohituaz joan dadin.

Eskola profesionalak zera eskaini behar dio bertako ikasleari: “Beharrezko den kultura zientifikoa bai baina beti, haren aplikazioak oso gogoan edukirik, ikasleen ezagueraren esku ez dauden demostrazio teorikoak alde batera utziaz”. (22).

(22) *Inauguración de la Escuela de Armería*. Memorias 1. 1912-1935

Egia esan, ezin da esan garbi mintzatu ez zirenik ezta ikuspegi zabalegia zutenik ere, baina hala ta guztiz ere, oso aurrerakoi izan zen Eibarko gizarte industrialarentzat, lehenengo urtetan bederen. Gertatzen zena zen, Eibarko Industrietako Estadu Nagusia erabat enpirikoa zela eta ikasleek eskolan ikasten zituzten nozio teoriko apurrak aski zirela delako hauei zalantzan jartzeko. Bestalde, "maila nagusietako ikastegiak" ez zuten inolako eraginik izan Eibarko ugazabengan, hauek gehienera ere, Armeria eskolatik pasatuak bait ziren. Hargaitik, bai hasera bateko 19 ikasleengan eta baita 1960ko 160engan, Eibarko gizarte maila guztietako izenak aurkitzen ditugu.

Administrazio Batzordea, Udaletxeko 13 ordezkariak, 8 ugazabek eta langileen 5 ordezkariak osatzen zuten. Azkenengo hauek, "Casa del Pueblo"koak ziren hasera baten baina gerora, profesionalek eta "Solidaridad de Obreros Vascos" (SOV)-ek ere izan zituzten ordezkariak.

Eskolaren egoera honela laburtzen du Garcia Manrique-k (23). "Armeria Eskola, 1913.ean sortu zen eta bertako ikasleak armagintzan trebatzen ziren bakarrik zeren eta Eibarren, armagintzaz eta damaskinaz aparte beste langintzarik ez zegoen, ferreteritza eta makinagintza has-tapen indarge batzuk izan ezik".

"Madridenten eman zuen dirua bere sorrerarako baina ekintza pribatuak zerikusi haundia izan zuen. Eskolaren jabegoa udaletxeak zuen eta bere administrazioa eta mar-txa, ugazabek eta langileek osaturiko batzorde baten esku zegoen. Lieja-ko eskola zuen eredutzat. 1924ko legea eta 1928ko estatutua sortu zirenetik Ministerio de Trabajo-ren

(23) GARCIA MANRIQUE. Op. cit. 51

esku gelditu zen. 1929aren geroztik, 4 ikastaroren ondoren "Maisu industrial titulua ematen zuen eta langileentzat gau eskola ematen zen hiru kursotan".

Eskolaren eragozpenik haundiena, ikastaroak amaitu ondoren lanik aurkitu ezina zen. Egoera hau, industria moten ugalpena hasi zenean konpondu zen. Ugalpen hau, eskola hontan ikasitako jendeari esker izan zen gehienbat.

Ikusten dugun bezala, UGT-ez aparte, beste sindikal talde batzuk ere badoaz agertuz Eibarren.

1912ko Urriaren 23an, Profesional Sindikatoa sortzen da Eibarren. Konfesionalidade katolikoduna da eta hiru adar ditu: Pistolagileen Sindikato Profesionala, Grabatzailleen Sindikato Profesionala eta Beste Langintzetako Sindikato Profesionala. Sindikato Profesionalen herriko Federazioa, 1913ko Apirilaren 8an sortu zen.

"Agrupación de Obreros Vascos" delakoa, armagilez eta antzerakoz osatua, 1913ko Urtarrilaren 13an agertzen da. (24).

"Ateneo Sindicalista", sindikatu izakerarik gabe, 1913ko Ekainean azaltzen da. (24).

Zalantzarik gabe, hiru sindikatu berri hauetatik organizatuena, Profesionalen Federazioa zen. 1915ean, "Cooperativa Sindicalista Católica" delakoa sortu zuten eta "El Sindicalista eibarrés" aldizkaria argitaratzen.

Bai Profesionalen eta baita SOV-en sorreran eta indartzean zerikusi haundia izan zuen Polikarpo Larrañagak, 1935. urtean berak aitortu zuenez. (25).

(24) Instituto de Reformas Sociales. *Estadística de Asociaciones*. Junio 1916 Minuesa, Madrid, 1917. 252-253 eta 401-410.

(25) El Día, 25-IV-1935

Dena dela, batasun sindikal berri hauek ez diote itzalik egiten ugetismoari, oraingoz behintzat. Profesionalek bultzaturiko kooperatiba baten jaiokerak halako dardara bat sortu zuen sozialisten baitan baina "Centro Obrero" ak urte batzuetako aurrerapena zeraman.

1909ko Urriaren 2an hasi zen funtzionatzen Eibarko lehendabiziko kontsumo kooperatiba. Amuategik dionez, Madinabeitia, Telleria, Chastang, Urrejola eta beste zenbait izan ziren kooperatiba honen defendatzaileak eta kontrario askori frente eman behar izan zioten.

Kooperatiba hau sortzeko, Erresistentziako elkarteek, Agrupazioko eta Juventudes Socialistas delakoetako elkar-tekideen artean eta abar, 25 pezetako obligazioen bidez 4.500 pezetako kapital bat bildu zuten. Hauetatik 3.200 haltzarietan joan zitzairen.

1911an sortu zen lehenengo sukursala eta ikaztegi bat gainera. 1914an bigarrena eta txokolategintzari ekin zioten. "Lehen produzio kooperatiboa izan zen. Aurrerantzerara ere orain arte daramagun abiada indartsua baldin bada-rama kooperatibismoak, laister Eibarko langileek beren lan-tegietan egingo dute lan, sozialistok dugun asmorik ede-rrera, pistola fabrika haundi bat montatzea baita". (26).

Baina dirudienez, pistola fabrika ez baina eskopetena izan zen aurrenik sortu zutena, "Boletín del Instituto de Reformas Sociales n° CLXXVI.k dionez.

"Eibarren eskopetagintzan diharduen "langile Elkar-teak" ekintza hau eraman du aurrera: produzio eta mer-kataritza kooperatiba bat sortu du 300.000 pezetako ka-pitalduna, "Sociedad Anónima" bat. Akzio bakoitza 50

(26) El Liberal, 12-VI-1914

pezetakoak da eta eskopetagintza elkarte honetakoak direnen artean behar dute banatuak izan. Ondorio gizan, hilean ehizeko 80 eskopeta fin egingo duen lantegi bat montatu da.

Akzioak ez zitezkeen langile elkarte hontakoak ez ziren pertsonen eskuetara pasa.

“Administrazio kontseilu batek gobernaturiko du lantegia eta lantegiko burutzat, zuzendari tekniko bat egongo da. Esku lanaren tarifak, langintza alorreko elkarteak erregelamentaturikoak izango dira. Langileek, elkarte barrukoak beharko dute izan. 8 lan-orduen arazoa eta enpresaren eta langileen arteko harremanak, lantegiko ordezkari baten bidez eramango dira.

“Estatutuek agintzen dutenez, irabazietatik ehuneko hainbesteko bat, Instituto Nacional de Previsión delakoa-rengangik dituen aseguroak hobegotzeko erabiltzen da. 1921ean, 21 langile zituen.

Elkarte honetaz aparte, “Omega” izeneko pistola automatikoak egiten zituen lantegi kolektibo batek ere funtzionatu zuen eta honen esperientziak Alfa sortzeko balio izan zuen. Ez dakigu lantegi hau “Industrial Obreiro Armera” izenarekin, armei marka faltsuak ezartzen zizkiola eta, salatua izan zen bera den ala ez.

Garbi ikusten denez, konparatu ere ezin da egin Ugetisten kooperatibismoa eta profesionalena, nahiz eta produzio kooperatiboen sorrera 1916aren geroztikoa izan zen zihur aski. Hala ere, mutur joka etengabea jardun ziren bi sindikal taldeok eta udaletxean sarri izan ziren ezin ikusiak talde bateko eta besteko kontzejalen artean.

“Solidaridad de Obreros «Vascos””, SOV-ek indar gu-

txi du oraindik eta borrokak alderdi mailan (PNV-PSOE) jokatuko dira batipat.

Eibarren, euskal nazionalismoaren lehen urratsak 1907-an izan ziren. 15 eibartar bildu ziren nazionalisten Batzoki bat sortzeko eta 12k baiezkoa eman zuten. Interesgarria litzateke bi taldeok zer nolako argudioak erabiltzen zituzten borrokan ikustea. Hitz gutxitan esateko, nazionalistak harritu egiten ziren "euzkotar" bat sozialisten artean ikustean eta holakoei, ukatu egiten diete euskal izakera ere.

Sozialistek, nazionalisten argudioen kontra, gero ere luzaroan iraugo zuen errazoiketa bat darabilte:

"Ba dira herri batzuk, konkista bidez, jatorri, hizkuntza eta arraza ezberdinetako herriak bereganatu dituenak. Lege berezien menpe dauzkaten, lege arruntetik at, zerbitzariak balira bezala.

Beti jaiki dira sozialistak bidegabekeria hauen kontra. Begira Austriara eta Poloniara. Poloniako alderdi Sozialistak, nahiz eta gaur nazio honek esistitu ez, bere herriaren berriztapenaren eta independentziaren alde dihardu borrokan.

Baina kasu berdina al da Bascongadas probintzietakoa edo eta Kataluñakoa? ez! Noizbait Euskaria nazio independente izan baldin bazen ere —guk ezetz borobil bat diogu— aintzinako denboretan izango zen eta damera ere ez zuen beste funtsik izango Gaztela, Aragoi eta Nafarroaren independentzia baizik, printze soberanoen arteko konpetentzia, alegia.

"Probintzia bascongadoak Espainiaren parte dira gizaldi asko dela eta ez dute herri menperatu baten tratua baizik eta alderantziz, beste probintziek ordaindu beha-

rrean aurkitzen diren zergak ordiandu beharrik ez dute. Gu ez gara honen kontra jardungo. Askatasun hauek eta beste asko opa dizkiegu errejio guztiei. Hau aipatu badugu, bizkaitar separatismoaren arrazoigabekeria azpimarkatzeko da.

“Euskal nazionalisten argudio nagusia, Espainerarekin zer ikusirik ez duen hizkuntzarena da. Baina goaz arira. Euskara abiada guztian galtzen ari da eta inork ezin dezake danera ere. Industriaren eta horren kontra ezer egin. Probintzia erdietan ez da mintzatzen, desberdina da Bizkaian eta Gipuzkoan, ia elkar ez baitira ulertzen. Idatzirik ia inork ez du konprenitzen eta idazten jakin, herriak ez daki deustsik.

Gainera gaur egun errejioen artean ez dago ohitura diferentziarik, lurpetik ondo hilik dagoena ateratzen saiatzen ez bagara behintzat, abesti eta dantzak komunikabideen erosotasuna dela medio, herri bakoitzaren berezitasunak ezabatuaz doaz eta humanitateak gero eta elkarren antz haundiagoa du, bere birtute eta akatsekin.

“Beraz, bizkaitar separatismoak ez du inongo funtsik, herriaren aberaskeria arrokeria edo eta lau jauntxoren haundi nahiak eta beste lauren eromenak ez duen bezalaxe.

“Esandakoaz gain, sozialistok, gizonon aberria mundua dela eta humanitatea berriz, maitasunak eta armoniak zuzenduriko familia bat, sinisten dugunez, euskaldunen eta katalandarren nazionalismoaren aurka gaude, gizonen arteak gorrotoak eta borrokabideak besterik ez baititu sortzen.

Espiritu honek itsuturik, jende asko giza libertateen bide zuzenetik apartatu egiten da, libertate hau ez baita

mugak ugarituz lortzen baizik eta muga guztiak deseginaz, jabetza pribatua deseustuaz eta gizonen arteko zapalkuntzari betiko ezkena emanaz'' . (27).

Unamunoren gorabeherak eta Meabe eta Madinabei-tiaren jarrerak eraginik izan zuten Eibarren hirurak izan zu-ten eragina, nahiz eta aro ezberdinetan. Gauza jakina da eibartar sozialista zuzendariak zenbat euskara erabiltzen zuten baina honek ez du euskal arazoaren aurrean jarrera ezberdin bat zutenik esan nahi, 14ko gerratearen aurretik bederen.

Errebindikazio alorrean, 1911.az geroztik, berriro ere greben berriak agertzen dira eta hau izango da noski so- zialista errepublikanoen artean tirabirak sortzearen kausa. Sozialistek 1903-4an, kontzejal bakar bat zuten udale- txean, 1911an, 3 eta 1914an, 4.

(27) *El separatismo y los socialistas*. La Lucha de Clases. 16-IX-1899.

IV

14ko KRISIALDITIK DIKTADURA ARTE

1914an garrantzizko gertakizun ugari pilatzen da Eibarko herriaren bizimoduan. Inportanteena zalantzarik gabe, inoiz baino sakonago bihurtu zen armagintzaren krisia.

1900 eta 1913aren bitartean, bikoiztu egin zen Eibarko arma produzio orokorra, batez ere arma motzei zegokiena. Eskulangintza haundiak egoera onuratsuan jarraitzen du, bere merkatal gaitasunari esker, nahiz eta tamainoen, salneurrien eta kalitateen ugaritasun eta aukerak jarraitu. Hala ta guztiz ere, gorakada etengabeko aro bat dugu hau.

Gerrateak berekin ekarri zuen merkatuen itxierak, pres-tatu gabe harrapatu zuen Eibar. Calbeton-en eta Etxeberriaren "aniztasun" proposamenek ez zuten fruiturik eman eta lantegi gehienek, pilaketa gaitasuna agortu ondoren, itxi egin behar izan zuten. Langileak sakabana ez zitezen eta lanik eza nolabait erremediatzeko asmoz, autobide bat

egitea erabaki zen. Lanik gabeko 787 langilek izan zuten lana.

Gainera laguntza berezi bat sortu zen, "Jatordu ekonomikoak", halegia, T. Etxeberriak dionez, Madinabeitia-ren ideia bat izan zen eta ez zen alditxo baterako soluzio gisan pentsatua izan, baizik eta "emakumeak beheko suaren murrizketatik askatzeko". 1914-1915ean, 1918-1919ean, 1920an eta 1927an funtzionatu zuen eta galduaz galduaz joan zen.

"Hasera baten jende guztiak jaten zuen jatordu hau. Gehienak, beharrak eraginda, zenbaitek erosotasunagatik eta ekonomiagatik eta beste zenbaiten, exeplua ematearren eta besteengandik ez bereiztearren". (3).

1927an Eibarko Casa del Pueblo-ak berriro ere iriki zedila eskatu zuenean, "La Lucha de Clases"-ko berri emai-leak, porrot egingo zuela zion, "Sopa boba" delakoarekin zuen antzagatik.

Hau zen sistima: Udaletxeak, behar ziren jeneroak erosi eta prestatu egiten zituen eta gero, oso merke —edo dohan, bezeroen egoeraren arauera— banatu egiten zitzaizen bezeroei. 1918an adibidez, hau zen jatorduen aukera:

- Haragia, patatak eta arrosa lagungarriekin.....	0,4314 arrazioko
- Arroza, bakillaua eta patatak lagungarriekin.....	0,4085 "

(1) Ikus grafikoa

(2) ECHEVARRIA, T. *Viaje por el país de los recuerdos*. 294

(3) CELAYA. Op. cit. 42

- Garbatzuak, arroza, patatak eta haragia	0,3447	“
- Babarrunak, patatak eta urdaia	0,2637	“

Sozialistek ez zuten inolaz ere nahi Eibarko esku lanak inguruko herrietara irtetzerik (etxerako lana ote?). Krisi aldiak herriko sozial maila guztiei zegokienez, une egoki bat zela zeritzaten, salneurriak eta soldatak jeitsi arazten zituen ugazaben arteko konpetentziari irtenbide bat emateko. Salbatu egin behar zen Eibar. (4).

Bien bitartean, Maiatzaren erdi aldera, kontzejal sozialista ziren Barrutia eta Amuategiren artean eztabaida gogor bat sortu zen eta hau dela eta, Barrutiak dimititu egiten du Agrupaziotik. Diferentziak, udaletxeko ekintzari buruzkoak ziren eta Barrutiak, honoko hau proposatzen zuen “El Liberal 1914-5-25”-k dionez:

—Ez zaio egoki iruditzen, udaletxeko batzarraren aurretik, kontzejalak eta agrupazioko komitea elkarrekin biltzea.

—Bere ustez, kontzejalek askatasun osoa euki behar dute administrazio arazoetaz botoa beren iritzira emateko. Alderantziz egitea, kontzejalak agrupazioaren mende egoitea esan nahi du.

“Amuategi, Urrejola eta Bernedo, beste hiru kontzejal sozialistek, beren alderdiaren berezitasunik nabarmene-na, politika personalistarik ez egitea disziplinatua izatea dela, diote.

Alderdiko zenbait elementuk begi txarrez ikusten dutela bera, dio Barrutiak eta horregatik, dimisioa eskatzen

(4) E. A. A-5-1

du behin eta berriz baina Batzarrak, aitzakia bat dela uste izanik, komitearen proposamenez Barrutia desautorizatzea erabakitzen du.

“La Voz”-ko berri emailearen ustez, udaletxe arazoe-tatik hasi ziren konpon ezinak eta Amuategiren izakerak haundiagotu zituen. Arazoaren oinarria, sozialisten zorroz-keria eta Barrutiak defendatzen zuen errepublikanoekin ongi konpondu beharraren arteko borrokan datza.

Arazo honek, elkarketaren tiradura haundiagotu bes-terik ez du egiten. Tiradura hau lasaituz joango da poliki poliki, talde biek, elkar lan politika bat hartu bait zuten. Baina gerrateari buruz jarrera garbi bat hartu aurretik, Eibarko “Juventudes Socialistas” delakoak, gerraren aurka-ko mitin bat eratu zuten Soraluzen.

Handik bi egunera, “Defensa Social” izenburudun hitzaldi bat ematen du Arakistain-ek. Hona hemen zati batzuk.

“Sozialismoaz mintzatzerakoan, sozialismo demokra-tiko batetaz bakarrik mintza gintezke eta ez estaduko sozia-lismoa deitzen dioten mamukeria horretaz. Sozialismo de-mokratiko baten baino gehiago, demokrazia sozialista ba-ten pentsatzen dugu.

“Demokrazia sozial bat da guk nahi duguna eta ez de-mokrazia indibidual bat. Antierdirakoia beharrezko gauze-tan baina gainontzeko aktibitate ekonomikoa, errejioen, probintzien eta udaletxeen esku geldituko da. Udaletxea da demokrazia sozial baten oinarria. Ez pentsa sozialismoa, kapitalismoaren berezko eboluzioak ekarriko digunik, na-hiz eta honek hura prestatu, eta ezta iraultza armatuak ere. Aurretik eta hortarako demokrata sozial eta teknikoak sortu behar dira. Demokratak, sozialismoari bere botoa

eman diezaioten eta teknikoak, sozialismoaren arrakasta aseguratzeke... (5).

Handik bi hilabetera, agiri bat ateratzen dute Bilbo-ko sozialistek, Independentziaren alde borrokan ari ziren Belgika-ko sozialistekin bat eginaz. Lehen Gerra mundial garaiko eibartar sozialisten jarrera aliadozalea ulertzeko, nahi ta nahiezkoak dira bi datu hauek ezagutzea: Eibar-ko armei frantziako merkatuen irekitzea eta alemanek egin zituzten arrantza ontzien urperatzeak.

Baina frantziar merkatuak ireki aurretxoan, krisia goraka doa eta Uztailaren 20an, Sindikato Profesionalek, Eibarren fabrika nazional bat ezar dezala eskatzen dio Gobernuari. Presio egiteko, ugazaba eta langile, denak batera, manifestazio bat egin zuten kalean zehar. Herritik lanik ez ateratzea eta egiteke dauden langintza publikoak aurrera eramatea dela soluziobidea erantzuten du Amuategik.

Abuztuan, Zubiarte kontzejal konserbadoreak proposaturiko Aginaga-rako bidea martxan zegoelarik, zera diote udaletxean Amuategi eta Goenagak: Bidegintza honen arrazoi bakarra, eibartar langileei mesede bat egitea dela kanpoko baserritarrek Eibartar langileen hainbateko bizi ezinik ez dutenez, bidegintzatik jaurtiak behar dutela izan.

Urte bereko (1914) Urrian, "Gabilondo y Urresti" lantegiko langileek grebara irtetzen dira, langile bat kalera jaurtia izan zela eta. Langile hori hartzea jartzen dute baldintzatzat lanari egiteko eta gainera, pulitzaile lana, pulitzaile asoziatuak egin dezatela. Bigarren eskari honek, istiluaren gogortzea eta ugazaba guztiak elkar hartzea dakar,

(5) La Voz de Guipúzcoa, 18-VII-1914

“La Voz de Guipúzcoa”k argitaratuko idatzietatik daki-gunez.

Jeneralki, jokaera guztiak nahasi samarrak dira. Bigarren eskaerari, hau erantzun diote: lan postu guztiak beteak daudela baina ez daudela langile asoziatuak hartzearen kontra, nahiz eta asoziatuak bakarrik ez. Langile Zentroak, grebarekin jarraitzea eta ezkongaei 2,50 pzt. eta ezkondueri 3,50 p. emanaz, 26 grebalariei irauten laguntzea erabakitzen du. Gero eta kakanahaste haundiagoa dago. 3 langileak ugazabaren bati egurturen bat eman ote dioten zurrumurrua dabil. Greba, Markano-k, Langile Zentroko idazkariak probokatu duela ere esaten da, bi hilabete lehenago bera lan eske joan eta eman ez ziotelako, etab...

Ez dakigu zer amaiera izan zuen greba honek baina bere ondoriorik inportateena, sozialisten eta “La Voz de Guipúzcoa”ko berri emaile errepublikano zen Etxaluze-ren artean sortu zen elkar ikusi ezina izan zen.

Lehen ere aipatu ditugu sozialisten artean zeuden ezin eramaneak baina errepublikanoak ere ez zetozen denak bat. Zuzendaritzak daraman ekintzaren eta sozialisten “menpe” egotearen kontra dagoen talde bat sortzen da Etxaluze-ren inguruan Zuzendaritzak berri emaileari egin zion “kontu eskatzeari eta monarkizale joeradun errepublikanoei buruz Goenagak egin zituen aipamenei erantzun gisan, zera idazten du Etxaluze-k:

“Bi urte da zuek alderdia gidatzen hasi zinetenetik eta harrez geroz jende asko dago daraman bidearekin konforme ez dagoena. Zuzendaritza gehiena —dena ez esatearren— ahuleziaz edo auskalo zergatik, sozialisten menpe zaudete...

“... Nonahitik datorren edozein “moreno”ri eskaitzen dizkiozue karguak. Aski izaten da edozein biltzarretan hitza eskatu eta “iraultzarako presta gaitzen” esaten badu.

“... Eibarko bizimodua bultzatuko duen Zentro berri bat sortzearen aldeko ideia bota berri du errepublikano jator batek. Jakina, Zentro horretan ez lirateke onartuko, kanpotik etorri eta gure interes politiko eta ez politikoen jaun eta jabe egin nahi duten hoiek”.

Maiatzean, Sozialistekin batera botoa eman duen konzejal errepublikano bat gogor erasotzen du nahiz eta berak, Barrutia sozialistaren libre botatzeko eskubidea defendatu. Etena zabalduz doa eta esan daiteke gutxi gora behera, badela sozialistetatik gertu dagoen errepublikanoen ezker hegal bat.

Ugazabek berriz, bi erakunde mota erabili zituzten garai hontan: patronalak eta industrialak. Lehendabizikoari dagokionez, “Sociedad Patronal Siderurgica de Eibar” delakoa sortu zen 1904an. 1910ean ere irauten du, “Junta Local de Reformas Sociales” delakorako ordezkariak izendatzearen berri badugu eta. Bere helburu nagusiak hauek ziren. Igandetako atsedenen aldeko legearen eta langile elkarteak industria eta merkatal prozesuan muturra sartzaren kontra borroka egitea. Industria erakundeei dagokionez, fruiturik gabeko ahalegin batzuen ondoren, “Unión Armera Eibarresa” delakoa sortzen da 1907an. Bere helburuak, armagintzaren krisi aldiak ebitatzea eta Smith errebolberraren kalitatea eta salneurriak hobegotzea, dira. “Hobekuntza hau aldi berean, ugazabaren kapitalaren eta langilearen soldataren mesedetan joango da”. Intento honek aurretikoek baino bizitza luzeagoa eta abe-

ratsagoa izan zuen. 1914an "Fomento Industrial de Eibar" delakoaren baitan gelditu zen.

1914tik 1920aren bitartean, krisi aldia gainditu ondoren, tirabirak guttitu egiten dira, gerrateak egundoko arma eskabidea sortu bait zuen.

Nahiz eta premiazko jeneroak gora eta gora joan beti, ez zen salto ikaragarririk gertatu 1917ra arte, ez behintzat destajuan ari ziren armagintza langileen irabaziak hondatzeko hainbatekorik.

Bestalde, Valdour-ek dionez, Eibatarren politika pres- taera ez zen ikaragarria, nahiz eta nonen hitzak oso fi- dagarriak ez izan, gauzen alderdi irriagarria agertzeko joera bait zuen. Giro kultural handirik ez zegoela nabarmena da. Hori bai, erudizioa eta eradaraz dotore hitz egitea, ongi ikusiak zeuden. Garbi ikusten da haientzat kultura, erdal kultura zela, euskalduna ez behinik behin.

Nahiz eta mitinetan sozialistek euskara erabili jene- ralki, ez zen beste hainbeste gertatzen beren hitzaldi eta antzerki saioetan, dakigunez behintzat. Edozein moduz ere, hizkuntzaren erabileraren eta kontzientziaren bereiz- keta planteatzen da hemen.

1915ean beste greba batekin aurkitzen gara baina ez zen greba berri baten hasera eta istilu zahar baten bu- kaera baizik izan.

1917an, aste bete iraun zuen greba orokor bat egon zen. Ez zen jarrerara radikalik eta bortizkeriarik gertatu, nahiz eta "El Debate" eta "España Nueva"ko berri emai- leek besterik esan. Ikus lehenengo aldizkariak zer zioen:

"ERREPUBLIKA LABUR BAT EIBARREN" - Aste- lehenean —geldi aldi eguna— Proklamatu zen errepublika Eibarren, borrokazaleek errepublikaren ikurriña jarri bait

zuten Udaletxeko balkoian. Beren helburua lortu asmoz, borrokalariek —2.000 inguru eta armatuak denak— herri defentsarako Eibarren zituen 90 guardazibilak eta 12 miketeak inguratu zituzten. Donostiara deitu zuen norbait ere izan zen eta hiri honetatik Sicilia erregimentuko batalloi batek irten zuen tren berezi baten Eibar alderantz.

“Maltzaga-ko zubia lehertuz, komunikabideak moztu nahi zituzten borrokalariek baina lehen aipaturiko indarren etorrerak galerazi zieten. Telegrafoak eta telefonoa moztea ezin izan zuten galerazi, tropak iristerako moztuak bait zeuden. Tiroak eta zaurituak, ugari izan ziren bai alde batetik eta bai bestetik. Hildako zenbait ere bai grebalarrien artean. Dirua farra farra ibili da tartean, gerraren hasera haseratik Eibar aliadoen mende bait dago, bertako lantegietan lortzen dituzte armak eta”. (El Liberal 8-22)

Etxaluze-k dionez, ostera, ez zen inoiz pakerik hautsi eta inor bahitu. “Animazio haundi bat besterik ez da hemen egon, gauero jo du Banda Munizipalak. Eibartar jendea eta istiluren sortuean ere etorririko Sicilia erregimentuko soldadu eta ofizialak, anaikiro ibili dira.”

“El Liberal”eko berri emaileak, Bilbon greba dauden metalgizonen 49 seme alabaren etorreraren berri ematen du. Abuztuaren 19koak zera dakar: “15ean, 16an eta 17an lantegiak itxirik egon dira eta baita greba sortuz geroztiko beste aurretiko egunetan ere. Greba, orokorra izan da baina batere istilurik gabea. Berri gose ikaragarria dago, bereziki Bilbokoak, eta edozein momentuan, han ikaragarriak gertatu direla entzuten da. Herriaren asmamenaren arauera, mila kontu ezberdin.”

20an, greba bukatutzat jo daitekela eta Batzordea era hontan mintzatu zaiela langileei, dio:

“Gure elkartasunaren eragingarri izan zen Bilboko metalgizonen grebak izan duen azkena ikusirik, hilaren 20an, —astelehena— berriro lanera itzultzeko aholkatzen diegu eibartar langileei, langile klasea batzen gaituen justizia eta elkartasun sentimenduak bizirik mantenduaz.” Batzordeak dionez, Bilboko metalgizonekin solidaritate gisan bakarrik planteatu zen greba hau.

“El Debate”n irakur dezakegunez, aliadozale ziren Eibarren. 1915eko Abuztuaren amaieran, Gobernuaren neutraltasunaren aurka mintzatzen da Iglesia Donostian eta Besteiro-k Eibarren eman zuen hitzaldi baten, Austriari eta Aita santuari errua bota eta sozialisten gerra ebitatu nahiak azpimarkatu ondoren, justiziari eta askatasunari buruzko gauza bitxiak esan zituen eta kapitalismoa eraso. Perezagua-k berriz, sozialista batzuk, alderdi baten edo bestearen alde jartzean, trakeskeria haundi bat egin dutela esan zuen Ortuella-n 1916aren haseran, proletal internazionalismoa azpimarkatu ondoren.

Urte bertako Uztailean, Besteiro-k gaitzak harturik. Aliadoen garaipenean konfiantza osoa zuela eta ideia liberaldun guztia aliadozale behar zuela izan esan zuen. Eta baita beste hau ere: “Bestelako gauzak esan badira ere, ez pentsa oraingo gerra hau sozialismoaren galerarako izango denik, baizik eta sozialismoaren garaipena azkartuko duen gertaera bat bilakatuko da.”

Zuloagak, “frantses umezurtzaren aldeko egun bat” egitea proposatu zuen eta herriak ongi erantzun zuen. Langileek eta ugazabek, egun hartarako irabazia eman behar zuten. Hiru ugazabek eta hiru langilek —talde bakoitzetik (Katolikoak, SOV eta UGT) bana— osaturiko batzorde bat sortu zen hartarako. Geroago, antijermaniar Ligan

parte hartuko dute sozialistek eta aliadoen garaipena ospatuko.

Hona hemen sozialisten beste ekintza mota batzuk: Bizimoduaren garestitzearen eta errepresioaren kontrako mitiñak eta lan krisiari buruzkoak. Arman probatzearen derrigorpena ezarri behar dela diote, krisiaren soluziobide gisan.

1918an, erabaki hauetara iristen dira: 1.- Eskopeta lantegi haundi bat sortzeko bideak ireki. 2.- Jatordu ekonomikoak. 3.- Ugazabek herritarrei eman diezaietela lehendabizi lana eta ez kanpotarrei. 1919an, lantegi haundi bat sortzearen aldeko agertuko da De Francisco.

Udaletxe politika arloan, 1915-1920 aroan, behin bakarrik - 1915ean berregin zen elkarketa. 1915ean, kontzejal sozialista bakar bat izan zen hautatua, 1915ean berriz, 6. Aro honen haseran eta batez ere bukaeran, sozialisten eta errepublikanoen arteko borroka, zitaldu egiten da udaletxearen baitan. Sozialistek, maisuek beren bizilekuak utz zitzatela marrazki akademia bat eta "rayos X" gela bat beraietan jartzeko, eskatu zutelako sortu zen istilua. Baita, Armeria eskola egiten ari zen kontratista ere gogor kritikatu izan zen sozialisten partetik.

Ugazaba elkartearekiko harremanak, gerra osteko krisi aldiaren ondoren, gero eta zailagoak dira. Krisi aldi honek, 14koaren tankera haundia du eta Eibarren, gainontzeko espainiar ekonomiarengan baino eragin haundiagoa izan zuen. Produzio "aniztasun" proposamenak ere entzuten dira berriro, nahiz eta berandu izan. Gerra denboran, Lieja birrindua gelditu zen eta horri esker, gorakada haundia izan zuen Eibarrek baina teknika mailan lehengo era ja-

rraitzen duenez, Eibar ezin da Liejaren mailara iritsi, hiri honek gerra ondorean indartsu jaso bait zuen bere burua.

Destajuko lanaren arazoa planteatzen da berriro ere. 1918an, Artamendi-k, destajuko lana langilearen mesedetan izan beharrean, erabat kalterako dela dio, zeren, eta irabazi gozeak lan gehiegi egitera behartzen du eta honek, giza organismoarentzen ikaragarritzko gaitzak dakartza.

Dakigunez, oraingo hontan planteatzen dute lehendabiziko aldiz sozialistek, lan moduaren eta bizitza kondizioen arteko lokera. Bestalde, Eibarko sanidade kondizioak gero eta eskasagoak direla dirudi eta Garcia Manrique-ren txostenak dionez, bere arrazoia, inmigrante berrien etorrera da. 1917an "tifus sukarren erasoaldiko txostena" k dionez, beste arrazoi honoko hau zen. (7). Hibaiak oso ur gutxi zeraman eta garbiketa lan guztiak bertan egitean gehiago kirasten ziren lehen ere oso garbiak ez zetozen urak.

Batenaz beste aro honetan, bizi mailaren kostuak askoz ere azkarrago igotzen dira soladatek baino, batez ere armagintzaren krisia kontuan edukirik.

Eta giro honen barnean daude, 1919ko Otsailean, Emakume Sozialista taldeak udaletxeari egin zizkion eskabideak:

"Udaletxeak ikus arazi diezaiola ugazaba klaseari zein atzera ezinekoa den lanaren ugaltzea. Gaurko egoera hau luza baledi, bizi ezinera gindoazke zuzenean eta inolaz ere gogozko ez ditugun bortizkeriak sortuko lirateke.

"Kontsumoari ezarririko zergak langilearen bizimo-

(6) VALDOUR, J. *La vie ouvrière. L'ouvrier espagnol. Observations vé-*
cues par: Lille, II. 375-377

(7) E.A. A-5-8

dua garestitu ez dadin, armei eta beste industriei ezarriak izan ditezela, behinik behin lana ugari denean eta estranjerekin neur gintezkenean...”

Garai hontarako Amuategi hila zen. 1914an Ameriketara joan zen. Ez dago garbi, Agrupazioarekin izan zituen desengainuengatik ala momentuko ahuldade bategatik egin zuen alde. De Francisco-ren izena, nahiz eta Eibarren bizi ez, goraka doa, anarko sindikalistek egin zituzten mitinetan bere parte hartzearen ondoren, seguru asko.

Azkenengo hauen jokabideei buruz ez dakigu gauza haundirik. Cesar Lorenzo-k dionez “1917 arte, gaizki eraturiko eta eragin gutxiko anarkista talde batzuk besterik ez zeuden Euskal Herrian” Hauen artean, Eibarkoa, “Ateneo Sindicalista”k 40 langile biltzen bait zituen 1914an. (9).

Lorenzo-k aurrerago dionez, (10), CNT-k UGT-ren indarrarekin topo egin zuen, sindikato hau aspalditik ari bait zen lanean eta langile multzo haundiak zituen bildurik bere baitan (Eibar beti izan da Espainiako gaztelu sozialistarik gogorrena). Baita, euskal nazionalistek zuzentzen zuten sindikato katoliko, abertzale eta konserbadoreekin aurkitu zen”.

Orrialde berean Horacio Prietoren zati bat Aipatzen da: “sindikalista gehienak, “maketoak” dira (meteco = forastero-ren aldaketa) eta esku bakar bateko behatzat aski dira anarkista euskaldunak kontatzeko.”

(8) VALDOUR. Op. cit. 372

(9) LORENZO, C. *Los anarquistas españoles y el poder*. Ruedo Ibérico. Paris 1972-127

(10) BUENACASA, M. *El movimiento obrero español (1886-1926)* Paris. 1960. 143

Hauetako bat, Galo Diez dugu. Bai H. Prieto-k eta bai Buenacasa-k, (11) euskal anarkismoaren figura nagusitzat daukate eta bere "purismo" agatik nabarmentzen gainera.

Propaganda mitiñak eta sozialista eta ugetistekin eztabaidak, izan ziren anarkisten lehen ekintzak. 1919 arte ez dugu uste talde sindikal independente gisan jokatu zutenik. Handik aurrera, "Sindicato Unico del Arte del Hierro" batetaz mintzatzen da.

1919an Gobernuak, propaganda mitin bat debekatu zien. Bajatierra, Rueda, Buenacasa eta beharbada "El NOI de Sucre" etortzekotan ziren.

Gobernadoreak ez zuen aski alkateak eraman zion garrantiekin eta guardazibil talde bat bidali zuen.

Hain zuzen, urte bereko Abuztuan, Atentadu bat egingo ote zioten beldur zela idatzi zion Mariano Foronda-k Gobernadoreari. Hontarako, Barcelonako anarkista bat Eibarrera etorri eta bertakoekin hizketatzen ari zela, zion. "Berri hau, Eibarko "Casa del Pueblo" an jaso da", esaten du. (12).

Legajo berean, Gobernazioko Ministroak Gipuzkoako Gobernadoreari bidaliriko eskutitz bat aurkitzen dugu. Hona hemen zati batzuk:

"Sinisgarri zaizkigun berri batzuk diotenez, Arma bidaltze ugari egiten da Eibartik Barcelonara. Nahiz eta hango Gobernadore Zibilak bere neurriak hartzen baditu ere, komeni litzateke zeuk zeure aldetik, ahalik eta zarata txikienaz, Joan den bi hilabetetako Eibarko arma irteerak nora joan diren konprobatzea eta baita ikus, joan

(11) Archivo Histórico Nacional. Gobernación A. leg. 57

(12) A.H.N. Gobernación A-3-2º

den egunetan herri horretan ibili diren Barcelonako sindikalistek zerikusirik ba duten arma bidaltzen hoiekin ala ez. Hortarako aski izango dela uste dut, hauek zein jenderekin izan zituzten harremanak hor, aztertzea. Baita azter ezazu, ea Irunen aurkitu berri diren armen helbidea, Nafarroatik zehar Barcelonaratzea zen ala ez. Arazoaren garrantzia azpimarkatu beharrik ez dago... Barka, hemen-dik aurrera Eibartiko armen irteerak —batez ere isileko irteerak— zaindu behar direla eta Gobernadoreari beren helbideen berri eman behar zaiela, esan beharra”.

1917ko Abuztuan, Eibarrera egin zuen joan-etorri baten lortu zuela bere arma, aitortu zuen Donostian bahituriko grebalari batek. Eta Dato-ren atentatuan erabili zen STAR-a ere, Eibartik irten zuen, beharrezko baldintzak bete gabe, goardazibil bati erosia hain zuzen.

Arrazoi hauek eta beste batzuk zirela bide, agintariek gero eta kontrol haundiagoa ezarri zien armei. 1921ean, gida sistema korapilotsu bat ezarri geroztik, estraperlo kasu hauek aurkitzen ditugu. (13).

1921-III-4. Arizmendi, ferreteria tankeran, gatilluak, orratz, gordegailuak, piezak etab... bidaltzen ditu Barcelona.

1921-V-16. Barcelonan, ferreteria izenean iritxi zen pakete bat begiratzean, arma gordailu bat aurkitzen dute inspektoreek eta hauek, Lizarriturri eta Larrañagaren lantegira etorririk, markatu gabeko 1544 errebolber aurkitzen dituzte.

1921-IX-16. Karmelo Mediavilla zuzendaritzat eta Va-

(13) IRS. *Estadísticas de las huelgas. Memoria de 1920*. Madrid. 1921. 116-120

lentín Vallejo Idazkaritzat zuen "Industrial Armera" lan-
tegian, joan zen Abuztuan esportazio legalez Beljikara eta
Italiara bidaliriko pistolen zenbaki berdindun 176 pistola
aurkitzen dira.

Ez dakigu aipaturiko kontrabandistek nola defendatu
ziren baina bistakoa da esportazio legepeturako eragozpe-
nak haundiagotu egin zirela.

Eta Eibarko anarkistekin jarraituz, 1920an bi mitin
eratu zituztela dakigu. Lehendabizikoan, bere Biltzarraren
berri eman zuten. Buenacasa-ren erlijioaren kontrako hi-
tzek, SOV-ekoen erantzun hasarretua erakarri zuten.

Bigarreanean, Buenacasas, Pascual eta Galo Diez min-
tzatu ziren. Buenacasa-k, bitartekorik gabeko "metodo zu-
zenaren" alde hitz egin zuen eta oinarri ugaridun erakun-
deak eta erresistentzia kaxak ez dutela ezertarako balio,
esan. Sindikalismoaren helburua ez da soldaten igotzea
eta lan orduen gutxitzea, baizik eta "desjabetzea, kapita-
lismoaren ordez, beste errejimen gizakoi eta justiziatsu
bat ezartzea: komunista errejimen soziala. Berehalako bor-
tizkeria aldarrikatzen zuen eta politika gaitzesten.

Pascual-ek, zergatik berak UGT utzi eta CNT-ra pasa
zen esplikatu zuen. Galo Diez-ek berriz Casa del Pueblo-
tik, Estatutu berriak eztabaidatzen hasi zirenean irten zuela
bere lagun talde batekin esaten ziharduen baina ezin izan
zuen bukatu, egundoko zaratotsa sortu zen eta.

Handik egun batzuetara sozialistek erantzunkizunak
eskatu zizkieten, "Comité del Sindicato Unico de Traba-
jadores" delakoak izenpeturiko horri bat zela eta; bertan,
"dejeneratuak" deitzen zitzaien sozialistei.

Galo-ren ekintza ez zen herri mailara bakarrik muga-
tu. 1921ko Abuztuan ikusten dugunez, Nin, Maurin,

etab..., CNT-ko ordezkariak Rusiara egitekotan ziren joan etorria Logroño-ko Batzarrak galeraztea lortzen du. Zaragoza-ko batzarrean ere, gai hontaz asko mintzatu ondoren, Batzarrak salatu dezala Rusiako Gobernuak hango herriari inposatzen dion zapalketa, eskatzen du.

Ez dakigu anarko-sindikalistek zenbaterainoko eragina zuten Eibarren UGT-ren baitan eta "Sindicato Unico"-aren bidez baina ez dirudi haundi haundia izan zutenik, naiz eta beharbada bai zerbait sindikatoren norabide orokarrari dagokionean.

Ugazaben politika, lehen esandako bideetatik doa. Orbea-k armagile ugazaben arteko batasun bat lortu nahi du, merkatalpen, lehengai eta salneurrien kontuak bateratzeko. 1919.aren azken aldera, tankera hartuz doa Ugazaba elkartea. Hontarako, errepublikanoekin harremanetan jardun ziren, bai batak eta bai besteak, zortzi lan orduko egunaren kontra bait zeuden. Sozialistek aldiz, urtearen azkenaz geroztik sartuta dagoen legea errespetatzea arazteko, piketeak sortzen dituzte, "Errespetatzea Zortzi orduak" lematzat harturik eta SOVIET izenpeaz... Fomento Industrialak ez du inolaz ere nahi armei zergak ezartzerik, emakume Sozialisten eskaerei entzungor eginaz.

Azkenik, legea onartua izan zen arte, UGT-ren borroka gai nagusia, lan orduen laburpena izan zen. Dakigularik, guraize lantegi baten greba txiki bat besterik ez zen gertatu 1918an. 1919an oster, soldatak igotzearen eta lan orduak gutxitzearen aldeko borroka ugari dira. Konpon nahiko jarrerak batzuetan eta gogorrek beste batzuetan, aurkitzen ditugu alde bietatik. Baskulagileak adibidez, ez dira grebara iristen, 0.15eko jasoera eta 9 lan orduko eguna lortu ondoren. Trocaola eta Aranzabal-eneko

langileek ere % 30ko jasoera dute. Artamendi-neko 25 langileak eta herriko hiru fundizioak aldiz, grebara jo zuten. Baina gogorrena, Orbea-nekoa izan zen. Irailean, lan orduen laburpena onartzen du eta Abuztuan, langileen eskariak onartuz soldatak jaso ondoren, lantegia itxi egiten du, eperik gabe. Arrazoia, langileek, Casa del Pueblo-ko Sindikatoaren bidez zenbait eskaera egiten dituztela. "Jokaera hau oso gaizki hartua izan da zenbait ugazabaren aldetik, nahiago bait zuten hauek arazoa zuzenean konpondu".

Bien bitartean, istiluak ugalduz doaz Gipuzkoan eta zenbait mintzaldi eta diru biltze antolatzen dute sozialistek, batez ere Bergarako oihalgintza grebaren garaian.

Ugazaba eta sozialisten arteko borroken garai hontan, Etxaluze, "La Voz"eko berri emaileak, UGT-ren kontrako kanpaina bati ekiten dio.

Bere salakuntza nagusia, Casa del Pueblo-ko sindikatoak, zenbait langintza (kaxagile, grabatzaile...) apropos ez erakustea erabaki duela, da.

Zera ere ba dio: Abenduaren bukaeran, Orbeaneko langileetatik % 80 lanik gabe dagoela. Zergatik hau? —urte berean sortu zen Sindikato Metalurgikoak, sindikatu gabeko langileak hartzen zituzten ugazabak boikoteatuak izango zirela agindu zuelako.

1920ko Martxoan, akordioa heltzen da azkenik eta Orbeaneko atea berriro irekitzen dira. Miguel Maria Orbeak dionez, Langile guztiak dira hartuak eta beste lantegi batzuetan lana aurtiku dutenengan ez da presiorik egingo. Eibarren kondizio bereziengatik, ezingo da soldata astero ordaindu ahal izango. Baina beharrean aurkitzen denari, ordainduko zaio eskatzen baldin bada. Esan beharra

dago, akordioa Casa del Pueblo-arekin egin zela. Sindikatoa, langileen ordezkari gisan onartua izan zela esan nahi du honek, sindikato arazoa izan bait zen "lock aut"-aren iturburua.

Lan errebindikazio jatorridun greba mogimendua Gipuzkoa guztian zehar zabalduz doa eta goardazibilei tratu txarren erantzule egiten zaie. Eibarren, egun erdiko greba orokor bat deklaritzen da, "Botere abusoa" salatzeko. Ugazaba elkartearen estatutuak, Urtarrilean erabakitzen dira. Beraietan, sozialisten eta antzekoen mutur sartzeak galarazi nahiz, Ugazaba elkarte hontako partaide izateko baldintzat, gutxienez 6 langileri lana ematea, inposatzen da. Baina geroxeago, artikulua bat berregin zen eta langile bati lana ematea aski zen ugazabatzen hartua izateko.

1920-aren hasieran biltzen da elkarte hau eta 21 jai egun izendatu ondoren, 8 ordu t'erdiko lan eguna onartua izan dadila eskatzen dio "Junta local de Reformas Sociales" delakoari. Pulitzaile eta kaxagile langintzak erakutsiak izan daitezela eskatzen dio Armeria Eskolari eta protesta agiri bat bidaltzen "Casa del Pueblo"-ra, Lezoko gorabeheral zirela eta, langileen geldi aldiagatik.

Ez dakigu zihur zein indar mota duen ugazaba elkarte honek baina bai Urtarrilean 79 bazkide zituela. Sindikato metalurgikoak bere aldetik, 1250 elkartekide zituen. Hauetaz gain, Eskopetagintza Langile Elkarteko 250, Pulitzaile Elkarteko 170, Etxegintza alorreko beste 60 eta beste Langintzetako beste 80. Beraz, Eibarko UGT-k 1810 elkartekide zituen danera. Gipuzkoako talderik haundiena eta Euskal Herriko haundienetakoa.

1920ko Abuztuan, soldaten eta beste zenbait gauzen inguruko eskabide batzuk egiten dizkio ugazaben elkarteari

baina honek, moldeatzaileen arazoa konpontzen ez den bitartean ezetz erantzuten du. Gipuzkoako Gobernadoreak, istilu bidea dagoela ikustean, goardazibil talde bat bidaltzen du. Honek, termometroa igo arazten du. Sindikatoak eman zuen erantzuteko epea, Irailaren 14an amaitzen da eta 6an, ugazaba elkartearen barnean dauden lantegi guztiak grebara irtetzen dira. Haseran, 15 dira langileen eskabideak onartzen dituzten ugazabak eta 8an, 26.

Ugazabek, 48 ordu barru laneratzen ez diren langileak kalera jaurtiak izango direla eta langile neurrien kontratapenari ekingo diotela jakin arazten diote Sindikatoari baina langileak ez dira gehiago larritzen, beren langintza berezitasunak babesten dituztela uste bait dute. Istiluak, pistola eta errebolbergintzari ikusten dio.

Alkateak, gobernadorea bera eskaini dela bitartekotza egiteko, jakin arazten du. "Junta local de Reformas Sociales" delakoak, 300 ordu extra, % 120 ordainduak izango direnak, eginak izan ditezela eskatzen du. Ugazaba elkarteak, gehienera ere % 60 emango dutela erantzuten dute.

Grebalarien batzordeak, ugazaba elkarteak, berak behartzen duela zenbait ugazaben eskaerak ez onartzera, salatzen du eta elkarteari loturiko ugazaba txikiei, berak izango direla galtzaile, abisatzen die. Sindikatoak mitin bat eratzen du eta bertan, De Francisco-k, Eibar lehen, soldatetik altuenetarikoak ordaintzen ziren eskualde bat zela baina bizimoduaren garestitzeak eta ugazaben egoskorke-riak egoera erabat hondatu dutela, dio. Ugazabek, langileen eskaerak erantzun ezinezkoak direla frogatuko balute, ez zirela mantenduak izango baina hori ez dela hola, dio.

Urrian, 1914 eta 1918ko tankera berdintsuko "jatordu

ekonomikoak'' hasten dira berriz. Bergaran antzerki saio bat antolatzen da grebalariei laguntzeko.

Azaroan, Fomento Industrial-ek igoera batzuk proposatzen ditu eta Sindikato Katoliko Libre-ak eta SOV-ek onartu egiten dituzte baina ez UGT-ek. Casa del Pueblo-a desegitea zela istiluaren helburua, dio grebalarien batzordeak.

Greba luze zihoala ikusirik eta irtenbide batera heltzeko asmoz, industria alorka arazoa zatikatzea pentsatzen du Sindikatoak baina ezer ez zela lortzen ikusiaz, haserako eskaerei eustea dio berriro.

Azaroaren 21ean, agiri bat ateratzen dute ugazabek. Bertan diotenez, ez dute langileen ordezkariarik onartzen, Casa del Pueblo-aren menpe bait daude eta gainera, asoziatu-erik langileen ertzain gisara jokatzeko dute eta asoziatu-erik ez daudenei, asoziatzera behartzen diete. Gainera ugazabei autoritate guztia kentzen diete. Lantegi barrutan kuotak kobratzearen aurka agertzen dira, ordezkarien agintearen aurrean, mututu egiten bait dira langileak.

Sindikatoak bere erantzunean, ordezkarien ugazaba eta langileen arteko harremanak erraztu besterik ez dutela egiten, dio. Eta baita, Sindikatoaren zeregin nagusia, langileei beren bete beharrak erakustea eta ordurako iristen ez zenari zuzentzea zela.

Azaroaren 25ean, Udaletxeak, alkateak, Baskaran eta Arriola kontzejalak osaturiko batzorde baten bidez bitartekotza egitea intentatzen du... Ugazaba elkarteak ez du onartzen batzorde hori, sozialistatzat bait dauka.

Azkenik eta hiru hilabeteko grebaren ondoren, Ugazaba elkartearen eta "Sindicato Obrero Metalúrgico"aren arteko konbenio bat dator. Igoerak haundiagoak dira lehen

soldata txikia jasotzen zuenarentzat, eta alderantziz % 8tik % 30 bitartekoak dira eta 8 hilabeteko epera berrikusi beharrezkoak. Ikus konbenioaren zenbait puntu: Konbenio salatzeko bideak; Birikietako gaitzak jotakoentzat laguntasuna; derrigorrezko lanik eza denerako, aseguru baten posibilitasuna aztertzea; herrian eta eskualdean "lege sozialak" betetzea; Armagintza produktuentzat salneurri minimun batzuk ezartzea, "langile eta ugazaben helburu nagusia hau baita"; Lan orduak gutxitzea lan eskasia denean, aipaturiko arauak oraingo kasu honi aplikatzea... (14).

Greba hau izan zen Eibar aldakor hartan sua piztu zuena. Alde batetik, konbenioa onuragarria izan ala ez eztabaidatzen da. Sozialistek eta Ugetistek, baietz diote; Solidarioek aldiz, greba ipurdiko haundi bat izan dela eta UGT-koak lur jota gelditu direla.

Zera diote Solidarioek: "El Obrero Vasco" aldizkarian. "Ezkutatu zen azkenik lantegietatik, Casa del pueblo-ko ordezkariak inposatzen zuten aginte despotiko hura. Orain berriz ugazabek, ordezkari zereginetan jarduten ausartzen direnak kalera jaurtitzen dituzte kupidagabeki.

"Langileak ez dira baja ematera ausartzen baina kuotak ordaindu ere, ez dituzte ordaintzen eta hori dela eta sozialista buruek, kalean zehar doazenean geldi arazten dituzte. Batzuek, ixil ixilik ordaindu egiten dute baina ez denak. Ganorazkoenak, Solidaridadera laister sartzekotan daudenak dira. "Ez dirudi gehiegi izango zirenik, solidarioak, 1919an 105 bait ziren eta 1930an berriz, 250 gutxi gora behera.

(14) LASPIUR, I. *Eibarko "Maquinas de coser ALFA S.A." KOOPE-RATIBAK*. Jakin Aranzazu, 1973. 109

Ez dugu berri zehatzik hontaz baina "El Obrero Vasco" k dionez, hauek ziren Eibarren eta Euskal Herri osoan SOV-ek zituen problemak: "Gehienek, Solidaridad, gaxoen mutualitate bat dela uste dute".

Polikarpo Larrañaga —Don Poli— berak ere, SOV-ek, "aurrenengo urtetan mutualista elkarteetan artean jokatu zuen", dio. Dena dela, lehendabiziko istiluak UGT-rekin izan zituen. Sindikato honi, atzerritar langileak hartzen dituela bere baitan, solidarioei tratatu txarrak eman dizkietela etab... salatzen diote. Ikus zer erantzun zioten SOV-koek Arrizabalaga kontzejal sozialistari, honek, ez zegoela langileak euskaldun eta ez euskaldun gisan sailkatzeko eskubiderik esan zuenean:

"... eta zergatik du zure talde politikoak "partido socialista español" izena? eta zergatik zuen "trabajadores españoles" sarreradun hitzaldiak? Zuek espainol langileok, espainol eta ez espainolen arteko bereizketak egin ditzakezue eta besteok berriz ezin dute beren nazionalitatea izendatu. Beharbada guzti hau, zuen logika sozialistaren barruan ongi egongo da baina arrazoiaren eta logikaren politikan, ez. Zuek egiten duzuen, dena oso humanoa da, besteena berriz, inhumanoa. ¡Zein nabarmena den "Socialista" izeneko hoiien espiritu espainolista! Bilbaon, hango kontzejalak euskalzaleek, Maiatzaren Lehena ospa zezaten, Banda Munizipala sozialistek uztearen alde botatu zuten eta Eibarko kontzejal sozialistek osterara, ukatu egin diote solidarioei, eginkizun berberarako behar zuten txanbolin txistu apal eta merkea. Pertsona hestu eta atzerakoiek, haundi nahikoak eta aginte zaleak".

Eta bien bitartean, batere aldatu ote zuten sozialistek euskal nazionalismoarekiko jarrera?

1916an "Casa del Pueblo" berria ireki zen Indalecio Prieto eta abar hizlari zirelarik. Bere politika, eibartar sozialisten artean sustraitzen ari zenaren adierazle izan daiteke parte hartze hau. Urte berean, Amuategik mitin bat eman zuen Euskaraz Sestaon. Hona hemen euskaraz ulertzen ez zuen "El Liberal" go berri emailearen laburpena:

"... Beren libertadearen alde hainbat odol isuri duten euskaldunek, berek izan behar zuten gure erakundearen hobekuntzan arduratzen diren aurrenak, baina hontaz ahaztu egin dira eta kanpotarren esku utzi dute". "Erakundea, euskaldunen zuzendaritzapean behar zen egon, ez gaitasun gehiago dutelako, baizik eta herri honetako ohi-turak hobeto ezagutzen dituztelako. Baina aurre iritziak alde batera utzirik, langile guztiak batu egin behar dute, bai euskaldunak, bai gazteldarrak eta baita beste errejioetatik etorriak ere."

1916. urte berean Etxaluzek sozialistei, udaletxe hauteskundetara nazionalistekin bat eginik doazen salapena egiten die. Froga gisan, Laskibar nazionalistaren 17 kandidateuren Amuategiren izena zutela eta honen 6tan Laskibar-ena agertzen zela, dio.

Baina eibartar sozialismoa beste zenbait lekutakoa baino irekiagoa zela nazional arazoarekiko uste izatearen arrazoia, hontan datza gehienbat. 1918an, hiru kontzejal sozialista zituen Eibarko Udaletxeak, fueroei buruzko legearen deseustapena eskatu zuen (15) eta baita 1920an ere, oraingo hontan, kontzejal sozialista baten proposamenez,

(15) TUÑÓN DE LARA, M. *El movimiento obrero en la historia de España*. Taurus M. 1972. 162

aipaturikoaz aparte, soldaduska derrigortua, kentzea eskatzen zelarik.

1916an berriz, hiru kontzejal sozialista zituen udaldirak, alkatea izendatu zuen aho batez, Diputazioak eratoriko autonomiaren aldeko batzarrera joateko eta hartarako, agiri hau azaldu zuten:

Probintziako Diputazioak Euskal Herrirako nahi duen autonomia, espainiar nazioaren batasunaren barnean ulertu behar da, aintzinako "Junta general" zaharrak berriztatuz edo gutxienez, udaletxeentzat autonomia oso bat eskuratuaz.

"Batasun nazionala, konstituzioak berak ezarria dagozeren eta honek, espainiar guztientzat libertade eta eskubide berberak aseguratzen bait ditu."

"Estaduaeren zeregin bakarrik diren zerbitzuen artean, Diputazioaren idatziak aipatzen dituen gain, Instruzio Publikoarena sartu behar da."

Bi gauza kontuan edukitzekoak dira garai honetan: alde batetik, euskal nazionalistek amor ematea arazo nazionalari dagokionean, eta bestetik, boltxebikeak iraultzak euki zezakeen eragina, beherago dakargun olerkian bereziki.

Eibarko "Juventudes Socialistas"ek izenpeturiko eta "El Obrero Vasco" k argitaratu zuen olerki bat da. Honoko sarrera hau zen: "Laister 49 sozialista mota ezberdin egon behar dute Iberiako peninsulan. Madrilekoak, Internazionalistak eta antiburgesak dira, Bilbokoak berriz, antieuskaldunak eta Eibarren, "Gora Euskadi" ohiukatzen dute. "Komeria bat da dena". Hauxe da aipaturiko olerkia:

“GORA BIOTZAK”

Justicia eguin
emen zan artian
Jaungoikuaren leguian
bici guiñan bakian.

Lanikan eguin gabe
bici izatia,
da alferrak languilleari
jarritako leguia.

Berriz munduari eman
bear zaio bueltia,
nai ez badegu bici
lapurren bendian.

“Lanik eguiten ez duanak
batere ez jatia”
Rusian ere languilleak
jarri dute leguia.

— Gora Euskadi eta
gora mundu guztian,
bere izardiakin
bici dan gentia.

Bera alper guztia
emen da danian,
mundu guztia languille
biurtu artian.

Guztiok lana eguinda
guztiok gozatzia
beste autu dana da
guezurra ta droguia

Bere izardiakin
ongui bici izatia
da guizonaren dako
jaungoikoan leguia

EIBAR KO SOZIALISTA GAZTEAK

Harrigarri benetan 4. eta 5. estrofekek diotena. Hala-beharrez beharbada?. Nuñez Arenas-ek zera idatzi zuen 1918-11-28ko “España” aldizkarian:

“Teoria mailako kontzeptu garrantzitsu bat zehaztu behar dugu, Internazionalismo kontzeptua, aberriaren

ideiari dagokionean. Urteak joan urteak etorri, oker interpretatu izan dira "Komunista Manifestu"ko zenbait esaldi, problema nazionala ez zela problema ziotenak, hain zuzen. Internazional eta nazional kontzeptuak aurka-koak bailiran jo ziren, bigarrenaren aberastasunaren eta indarraren arauera ibiliko dela lehenengoa, ulertu gabe" (16), (17).

1922an Madinabeitiak, mendietara igo behar zela eta baserritar jendearen urruntasuna eta ardurarik eza sozialisten errua zela, zion.

Lehen ere esan dugu nazionalistek kontzejal bakar bat zutela 1920an, Eibarko udaletxean. Sozialistak 8 zituzten, hoietatik 6, azkenengo hauteskundetan hautatuak. Sozialistek 692 boto izan zituzten denera.

Lehendabiziko ekintzetako bat su-zergak berriztatzea izan zen. Etxaluzek, zera dio "ezker muturreko kontzejalak daudenez, berdintasun proporzionaleko zerga direktuak aprobetxatu dute. Ezin ikusi zaharrak berritu nahi bat, beharrezko produktuen zergak lehen bezala utziz". Jendeak ez duela ordainduko, aurreratzen du eta hala gertatu zen. Ordaintzeko edo eta bestela bahituretara joko dutela, zerga emaile haundienetatik hasirik, mehatxu egiten dute. Sozialistek, su-zergak, beraiek Udaletxera sartu aurre-

(16) Handik bi egunetara. "El Socialista" aldizkariak, PSOE-ren batzar "Iberiar nazionalitateen konfederazio bat. Sendotasun zalantzagabe bat dutela adierazten duten einean izango dira onartuak eta beren askatasuna ezingo da Españian ezarririk dauden eta herri zibilizatu guztienak diren eskubide indibidualen kaltetan joan ahal izango. Proposamen hau Reustik etorri zen eta Nuñez Arenas izan zen proposamena onartu zuten batzar-kitariko bat.

(17) Ikus pleito honi buruzko Egurenen lana. *Breve Historia del pleito armiero*. Eibar. 1923

tikoak zirela diote. Behinik behin, inork ez du ordaintzen eta 1922ko Urtarrilean, kontsumoen zergak igotzea eta arrozari beste berri bat ezartzea erabakitzen du Udaletxeak. Sozialistek, gogoaz kontra botatu dutela diote. Hauetako lauk behintzat, kontra botatu zuten. Gisasolak berriz, bere adiskideen kontra ez botatzen arren —Kontsumo zergak beharrezkoak zirela uste bait zuen— irten egin nuen bileratik. Telleria, hauzipeturik dago eta beste kontzejal sozialista bat gutxienez, ez zen bilerara agertu. 1922ko hauteskundetan, sozialistek hiru kontzejal bakarrik lortzen dituzte. 504 boto jasotzen dituzte baina bozketan parte hartzea, % 40tik % 80ra igotzen da.

Bien bitartean, zatiketa bat dago PSOE-ren barnean baina hontaz mintzatu baino lehen, Rusiako iraultzak Eibarren izan zuen eragina aztertu nahi dugu.

1905eko Zar-aren zapalkuntzaren aurkako kanpaina, SOVIET izenpea edo eredutzat eukitzeaz aparte, T. Etxeberriaren zati honek adierazten digu ongien arazo honekiko zegoen giroa. "La lucha de Clases" aldizkarian agertu zen. Proletalgoaren diktadurari buruzko eztabaidak ugari direla Eibarren, batez ere Rusiari buruzkoak. Batzuk bide legalak gaitzetsi egiten dituztela iraultza lortzeko. Bera bai bide legalak eta baita ilegalak erabiltzearen aldekoa dela, dio.

1920ko Maiatzaren Lehena prestatzerakoan, Casa del Pueblo-ko batzordea, batasunaren beharraz mintzatzen da egitaraua aurkezterakoan:

"Gure eskabide nagusiak eskuratzeko presta gaitzen, Rusia haundian eskuratu dituzten bezala"

Zatiketaren ondotik, 1923ko Maiatzaren bateko erabakiek ere, Sovietarren Erepublika errekonozitu zezala eskatzen zitzaion Espāniako Gobernuari.

Bien bitartean Eibartik pasatzen ziren sozialista bu-ruak, laudorioz betetzen zituzten sobietarrak. De los Rios Berak ere, 1920ko Uztailean, kapitalaren eta lanaren artean ez dagoela konponketarik eta Rusia, kapitalismoaren desegitearen hasera markatu duen puntu argitsu bat dela, dio.

Urte berean, Perez Solís Eboluzioaren aldeko agertuko da, baina eboluzioa, iraultzarekin bat egin bezala ulertu behar dela, eta Rusiaren egoera, Espāñiakoarengandik desberdina dela, dio.

1921eko Martxoaren 28ko "El Socialista" k, zera dakar Eibarko Berrietan: "Agrupazio Sozialistak izan zuen batzarrarean, eztabaida luze baten ondoren, 18 boto alde eta 14 kontra zituela, Mosku-ko Internazionallean sartzea erabaki zen, 21 baldintzak onartuz. Eguneko ordenaren beste puntuei dagokionez, ordezkarien esku utzi zen, batzarraren martxaren arauera, bere botoa libreki eman zezan.

"Ordezkariaren izendapena, Biltzarrak, Komitearen esku utzi zuen, probintziako beste Agrupazioekin batera, hauta zezaten."

Harritu egiten gaitu botazio hauetan hain boto gutxi ikusteak, garai hartan Agrupazioak gutxienez ba zituen 100 elkartekide eta Martxoaren azken aldera, Martin Erkiaga, Toribio Etxeberria, Marcelino Bascaran, Alberto Mendiguren, Jose Ignacio Etxeberria eta Ignazio Galarragak, beren atxikimendua bidaltzen diote berriztatzaile taldeari.

Batzar bereziko izendatu ziren ordezkariak, Perezagua eta Perez Solís izan ziren, baina ordezkariak galdurik aurkitu ziren, zeren eta Apirilaren 30ean Eibarren egin zen Biltzarrean, Batzar osoak, PSOE-ren bidetara tinko

eustea eta Kongresoaren erabakiei atxikitzea erabakitzen bait du.

Apirilaren 13an jadanik, III. Internazionalaren aldeko ziren Juventudes-etakoak, alderditik banatu egin ziren.

UGT-ren eraginari buruz ditugun zenbakiak, nahasgarriak izan daitezke, ez bait gara aurkitzen bi sindikato ezberdinen jokabideekin bakarrarekin baizik eta baita Sindikatoaren eta ugazaba elkartearen arteko borrokarekin, industriaren krisiak zitaldua gainera. Borrokak ez dira amaitzen eta 1921eko Uztailaren 21ean, Langile Elkartearen marka armetan ezartzea ugazaba elkarteak galerazi egin zuelako, berriro ere greba dator. Aranberri etxear amor ematen du eta eskopetagile elkarteari 4.000 pezetako indemnizazioa ordaintzen zaiolarik, greba amaitu egiten da.

Abenduan, pistola lotzaileen lana lehenago bezalaxe ordaindua izan dadila eskatzen du Sindikato Metalurgikoak, Aranzabal y Cia entrepresari. Ugazabek langileen eskabidea ikustean, estatutuak galerazi egiten zutela arazo hoiek Sindikatoarekin bakarka tratatzea, erantzun zuten. 20 langile "lotzaile" grebara irten ziren eta ugazabek, lantegia ixtea erabaki 125 langile kalean utziaz. Gero, banan banan deituz joan zitzairen. Abenduaren 21erako, 12 langile lanera itzulirik daude eta 27an, Sindikato metalurgikoak, 27 langile eta 12 enpleatu eta enkargatu salatzen ditu. "Boletín del Instituto de Reformas Sociales"ek, galdutzat jotzen du greba, 40 langile aski bait dira eginkizunak betetzeko.

Udaletxean, ez doazkie gauzak ondoegi sozialistei. Telleria alkatea, duela urte bete Juventudes Socialistas-ren agiri bat argitaratzea onartu zuena hain zuzen, alkateztatik jaurtikia eta hauzipetua da 1921ko Azaroaren 21ean.

Basgaran jartzen da bere ordez baina hau ere bere kargua utzi beharrean aurkitzen da, 1922an Villabella sartzen delarik Erregearen aginduz.

Gisa hontako izendapenen aurkako protesta bat agertzen da urte hartako Maiatzaren Lehenean, Sozialisten artean. Honetaz aparte, Gobernuak daraman politikaren, Marruecos-ko gerraren, orduak luza eta soldatak jeisteko ugazabek duten asmoaren kontrako protestak ikus ditzakegu.

Dakigunez, egun hontan mintzatzen da azkenengo aldiz Jose Madinabeitia Eibarren. Erreforma kontseilatzen du eta iraultza, lehendabiziko posible ez denean. Eta lehen esanaren legez, "mendietara igo eta gure dotrinak euskal baserritarrei erakuts, gure erruz guregandik hain urruti dauden kaiku hoiei"

1922an, beren bazkide bat kaleratu zutela eta, solidarioen greba bat dago Eibarko lantegi baten. "Langile komisioak bidali zion idatziari, ez zuela erantzunik sor, lantegiko barne-eraketak ez ziola uzten eta, erantzuten du ugazabak".

1923an, dimititu egiten du udaletxeak — "Pleito Armero" (18)— eta herriko indarren halako gerturatze bat ematen da, nahiz eta eztabaidak ugari izan. Gerturatze hau, diputadutarako Urizar hautatzean gauzatzen da. Nahiz konserbadorea izan, sozialisten boto eta oniritziarekin kon-tatu zuen, pertsona egokitzak bait zeukaten, Gortearen aurrera, Eibarko eskualdearen ordezkari izateko.

1920 eta 21 eko greben geroztik, kooperatiba lane-tan murgildurik ikusten dugu UGT-ren ekintza eta soldata beherapen asmoak egon arren, ez dugu garai hontan gre-barik izan zen berririk.

Solidarioek horrela ikusten zuten 1923.aren haseran Eibarko egoera orokorra:

“... Pena ematen du aitortzeak baina langile arazoe-tako gogorik eta ganorarik ez da inon ikusten. Langi-leak desengainu asko izan ditu eta ondotxo daki haundie-na, 8 orduko lan egunak eman diola. Neurri hauek sar-aurretik ere ez zegoen dena ongi baina pratikan, gizonak lan gutxiago egiten duela baina jan ere gutxiago egiten duela ikusi da. Behar beharrezko diren jeneruak, janari eta jantziak, alegia, soldatak baino azkarrago igo dira eta sol-data itxurazko bat irabazteko bidea duenak, tira... Nahiz eta itxura batera egoera hau normaltzat jendeak euki, langileak eta ugazabak etorkizun hobeari baten itxaro-penetan egonik, gaurko egoera hau zein larri eta hestua azaldu nahi ez dutelako da.

“Bizimodua lehen baino hiru aldiz garestiago dago, soldatak berriz lehen bezain eskas edo eskasagoak. Beraz, bueltarik gabeko egia bat dinogu, gizonak lan gutxiago egiten duela baina jan ere, gutxiago eta gaizkiago egi-ten duela, dinogunean.”

“Beraz, bide txarretik doaz gauzak eta egoera honi frente eman beharko diogu, gero eta okerrago joan ez da-din. Gizonaren bizimodua hobeari gogotzeko oinarriak, Hu-manidadea eta Anaitasuna dira. Lanerako gogoia erreku-peratu behar du langileak eta gogo onez lan egin. Uga-zabak berriz, behar den bezala ordaindu behar dio lan-gileari. Horrela jokatzek bakarrik aldatuko da listortegi bat bihurturik dagoen bizimodu hau, listorrek arrapatuz, jaki-na.”

“Klasearen batasuna sakratuaren bila joan gaitezen, gure eskubideak justiziaz defenda ditzagun. Salneurriak

jeisteko asmoz eta ugazabek beren artean duten kompeten-
 tzia kaltekorra, eraginez, ezartzen dituzten soldata behe-
 penen kontrako protesta azal dezagun. Eska diezaiegun
 agintariei, langileen etxe bizitzei buruzko legeak zuzen be-
 tetzea edo eta hobetzea. Frente eman diezaiegun, neurri-
 tik kanpora eta inongo arrazoirik gabe, errentak jasotzen
 dituzten baserritarren aberats goseari.”

V

DIKTADURATIK ERREPUBLIKA ARTI

... (faint text) ...

... (faint text) ...

... (faint text) ...

V

DIKTADURATIK ERREPUBLIKA ARTE

Nahiz eta ALFA kooperatiba Primo de Ribera-ren diktatura baino lehenago sortua izan, hona arte arazo hau ateratzeari egoki iritzi izan diogu. Hona hemen kooperatiba honen eragile nagusia, Toribio Etxeberriak, 1928-VII-26-ko "El Socialista" aldizkarian zionez:

"Gerraren akaberak, goraka eta beherakada aro baten sartu zuen industria, beronen izakera bereziak eraginik. Eta nazio mailako bizitzaren erritmo zoro eta korapilotsuak, Eibarko bizitza gobernatu ohi zuen liberalismoa deusestu zuen.

Klase borroka ikaragarri gogortu zuen zakarraldiak, ugazabengandik sortu ziren lehendabizikoz.

Langileek, erresistentzia modu berriak probatu zituzten. Hauetako bat, industriaren alor bertan, nagusiei kompetentzia egitea da."

Haserako kapitala, 300.000 pezetakoa zen, 50 pezeta-

ko akziotan banatua. Lehen emisio aldian, hirutik bat bakarrik saldu ziren eta hauetatik % 75ek bakarrik eman zuen dirua.

Hasteko, Echeverria Hermanos-en lantegia erosi zen 171.000 pezetan. 50.000 pezeta sarrera gisan, 25.000 pezeta bi hilabetera eta gainontzekoa, 5.000 pezeta hilero. Tresneriaren balioa, 60.000 pezetakoa zen eta eredu berrien fabrikazioa, handik hiru hilabetera burutua zegoen.

Haseran, 50 langile ziren, 1921ean 100 eta 1922, 200. Akziodunak hauek ziren: lantegiko langileak, sozialista kooperatibistak, Kontsumoko kooperatiba sozialista, Bizkaiko Mehatz Federazioa, Sindicato Obrero Metalurgico-a, Agrupación Socislista eta Juventudes Socialistas.

Alfa, kooperatibismo sozialistaren aintzindaria izan zen. Kooperatibismo mota honen helburua, Kooperatiben Bazar nazionalak zionez, zera zen:

“Kooperatibismoaren bidez lortu nahi dugun helburua, hau da: Kontsumoko kooperatiben bidez gaur eta Produkzioko bidez bihar, proletalgoaren esku utz kapitala, lurra, tresneria eta lanabes guztiak, aberastasuna guztiona izan dadin, bitartekoen eta burgesiaren zeregina ezinezko bihurtuaz, kapitalismoa arras desegin arte, zapalkuntzarekin bukatuaz, gure giza nortasuna geureganatuz eta nork bere lanaren produktu osoa eskuratuaz. Libertatean eta justizian oinarrituriko deretxoko estatu baten barnean, pertsonaren bizitza neurri gabe zoriontsu izan dadin”.

Helburu hauek lortzeko, eginkizun hauek hartzen dituzte kooperatibak:

- 1.- Beraietako langile guztiak langile elkartetako bazkide izatea.

- 2.- Istiluren bat denean, langileen ordezkariak eta eskualdeko kooperatiba federazioko jendez osaturiko batzorde baten erabakiak onartzea.
- 3.- Kooperatibari dagokion arloren batek hobekuntza sozial alorreko eskabide bat egiten badu, kooperatibak berehala onartuko du, ugazabek ere onartzen badute. Ez badute berriz, ez.

Langile erakundeak berriz, beste hontara behartzen dira:

- 1.- Kooperatibei soilki dagokien sozial alorreko eskaririk ez egitea.
- 2.- Grebak, nahiz batzuenak, nahiz orokorra izan, ez du kooperatibetan inongo eraginik izango.

“El Socialista”k dionez, Migel (G)? Armendia eta Vicente Diaz izan ziren bilera hartan Eibarko ordezkari gisan.

Espiritu honen barnean dago T. Etxeberriaren zehazpide hau: “zalantza izpirik gabe, lantegi bat izate sozialerik aldatzeko eta lantegi kapitalista izatetik sozialista tanke-radun bihurtzeko, aski da dekretu bat eta ez dago bere anatomia, bere fisiologia eta eginkizuna zertan aldaturik. (1).”

Alfa ez zen izan espainiar sozialismoaren joera orokor bat bakarrik, baizik eta areago, herriko langile mugimendurako funtzesko izan zen greba baten ondoren, Eibarren bertan heldu ziren asmo batzuen fruitu.

Horregatik, planteamendu orokorrei, beste zehaztasun hau erantsi behar zaie: “Ugazabentzat eta baita lan-

(1) ECHEVARRIA, T. *La experiencia socialista en España. Vista desde mi pueblo*. México. 1966. 39

gileentzat ere, eredu bat izan zedin sortu zen lantegi hau. Ugazabek, enpresa gizonen jectio on baten bidez, ongi produzitzea eta aldi berean langileen eskubideak errespeta-tzea posible dela ikus dezaten. Langileentzat, ugazaba partikularren zorrozkeriari en premiarik gabe, beren egin behar-rak betetzen ikasiaz joan daitez en'' (2).

Baina Alfaren garrantzia ez dago bakarrik koperati-ba sozialista izatean baizik eta baita, Eibarko produzio mo-ta aniztasunari eragitean.

Ez gara sartuko armagintza krisiaren iturburuak iker-tzen baina industria aniztasuna erakarri zuela apurka apur-ka, gauza garbia da, ez atetan dagoen krisi baten atera-bide gisan baizik eta irauteko bide bakarra zelako.

Eibarren hain ugari ziren lantegi txikiak, poliki poliki egokituaz joan ziren produzio mota berrietara baina GAC eta ALFA izan ziren Errepublika aurretik, hazkunde gogor bat izan zuten lantegi bakarrak.

Alfak produzio aldakuntzari 1925ean ekin bazion ere, lehendabiziko josteko makinak ez ziren 1927 arte agertu. GAC-ri ere gertatu zitzaion bezala, Consejo Nacional de Economía delakoaren aurrean, industria berria sartzeko es-kubidea tramitatu beharrean aurkitu zen. Alfak konkretu-ki, espaiiar ekonomian jadanik sartua zegoen SINGER ma-kinen konpetentzia gainditu behar izan zuen. Bultzadarik haundiena, Gobernuak 800 makinaren eskabidea egin zionean hartu zuen. Eskabide hau, leihaketa ireki baten lortu zuen.

1750 makina atera zituen 1927a, 2.465 1928an eta

(2) Bizkaiko Sindikato Metalurjikoari Alfak 1927an bidali zion txostena. Ignacio Olarrak Salamancan aurkitua.

12.000 1935ean. Aldakuntza hauen pisua, bertako langileen gain joan zen, zeren eta lantegia larri aldi baten aurkitzen zenean, langileek, bertako 8 orduz aparte, beste lantegi batzuetan jarduten zuten orduetatik kanpora. Gainera soldata ere ez zuten osorik jasotzen, behintzat hori ikusten dugu 1925ean.

Urte hontan, destajuko lanaren ordeztu, soldata eta prima sistema ezarri ondoren, 100 bat pezeta irabazten dute astean. Hauetatik ikus eskuratzen zutena:

Seme-alabadun ezkonduak	70 pezeta
Seme-alaba gabeko ezkonduak	65 “
Ezkongabeak	60 “

Gainontzekoa kaxan gelditzen zen eta % 3ko interes bat kobratzen zuten. Diru beharrean aurkituaz gero, atera zitekeen, jereuntearekin elkarrizketa bat eukiz. Asteko soldataz gain, Sozialista kooperatiban erosketak egiteko balio zuten bonotan kobratzen ziren 20 edo 25 pezeta. Bono haiek, poliki poliki onartuak izan ziren herriko beste zenbait dendatan ere.

Bestalde, sozialista denak ez zeuden ados kooperatibekin, 1929-III-1eko “La Lucha de Clases” aldizkarian ikus dezakegunez.

Berri emaileak gaizki ikusten du lan molde berri hau eta bere ustez, Eibarko kooperatibak, “langile eta sozialista erakundeak euki behar duten borroka gogoaren kalterako dira.”

Sindikalko mugimenduarengan, kooperatiben sorreraz aparte, eragin handia izan zuten 1920 eta 21 eko grebak. 1927an, greba haien balioa ala eza eztabaidatzen zen oraindik.

Ez dugu berri haundirik baina bat bai, 1927-XI-23ko "La Voz de Guipúzcoa"n azalduko eta aipagarria. "Eibartar langile organizatuek, 20 eta 21eko istilutan bidegabekeria asko egin zutela zioen eskutitz bati erantzun gisan, "eibartar langilea, zentzuduna izan da eta inork baino bidegabekeria eta takarkeria gutxiago egin izan du egoerak lagundu dionean" dio.

Premiazko jeneroen igoeraz mintzatzen da eta soldaten igoerekin ez doazela batera. Hau jartzen du soldatak jasotzeko beharrezko arrazoitzat. "Gauza berbera egin zuten soldadak beten morroi diren beste sozial maila guztiak ere —enpliatuak, militarrek etab...—", eta horrela jarraitzen du:

"Baina zoritxarrez, Eibarko ugazaba klasearen egoskeriarekin aurkitu ziren langileak eta egia esan behar baldin bada, ez zuten halakorik merezi, gerra denboran izan zuten portaera zintzoa eta gaur eguneko lan etengabea ikusita. Soldadak itxurazko bat jasotzen bazuten ere, beren osasuna arriskuan jarri ondoren zen eta ez ongi ordaintzen zelako. Eta bitartean, gerra garai guztian ugazabak, aberastu eta aberastu. Gerrarekin batera bukatu ziren lan kontratuak ere eta zer jokabide hartu zuten ugazabek? zein industria montatu zuten langileen izerdiz gerra denboran pilatu zuten diruaz? Egia zutena, beren kapitala itsas ontzigintzan, marko erosketan eta ur jauzi haundien akziotan jarri.

"Hots, beren diruak, mila eta bat gaueko ipuinetan ezarri zituzten, berentzat lan egin zuten beharginak kalean edo atzerriraturik zeuden bitartean."

1919an, merkatalgoa bere onera etortzean, Casa del Pueblo-ko bazkideak goraka joan ziren. Sindicato Meta-

lurgico-a indarberritu egin zen eta eskaera berriei ekin zitzaien. Grebara jo zen baina greba bat baino gehiago "lock aut" bat bihurtu zen. Ugazabek, lana erruz zen aro bat alperrik galdu zuten. Langileek berriz aurreraturik zuten guztia gastatu. Horrela, egoskorkeria politiko bategatik gehienbat eta ez ekonomia alorreko arrazoiengatik, herri oso bat pobretu zuten. Orduan ere jakinean geuden eta harrez gero ugazabek berek aitortu dute, merkatuek erraz erantzuten zutela langileen eskabideei amor emateko".

Ondorengo krisiarekin batera, errepresioak hasi ziren. Erakundearen barruan, beldurra nagusitu zen eta sakabanaketa etorri zen. Gaur egun anarkia da nagusi, langile sindikatoek eskatzen zuten "salneurrien, soldaten eta destajuen batasuna" ren ordeaz.

Casa del Pueblo-ko bazkideei buruz, zentzudunenak garela leku guztietan, esan dezakegu. Geure borroketan ez dugu ia gehiegikeriarik egin eta baten batek egin baldin baditu, borroka eta neketara gutxien ohituak eta arriskua datorren lehendabizi guregandik alde egin zutenak izango ziren. Hobekuntza materialak eskatzeko orduan berekoi eta zaratatsuenak hain zuzen, hobekuntza moralak ez bait zuten haien buruetan lekurik."

"Baina guk, geure indar organikoaren ikurrina jasotzen dugu. Izan ditugu ihes egiteak izan arren (asko eta asko krisiaren eraginez), betiko lekuan jarraitzen dugu gure idealaren alde lanean eta hor daukagu eraikirik, gure etxe soziala den Casa del Pueblo-a, eibartarron arrotasunerako. Hor daude gure kontsumo kooperatibak eta produzio kooperatibak, josteko makinagintzan ari den lantegia, Eibartik haundiena eta baita Espāñiatik ere bere alorrean.

Bestalde eibartarrok, geu izan gara geure erakundea-
ren eragile eta jabe eta ez dugu onartu eta bultzatu ino-
lako nahaslerik”.

“Gehiegikeriaren bat inoiz eman baldin bada ere, se-
kula ez da odolik ikusi eta gertatu den guztiaz erantzun
genezake.”

Esplikazio on bat da Primo de Rivera-ren diktadura
garaian, UGT-ek Eibarren euki zuen krisialdia ulertzeko.
Begien bistako dena, zera da: Soldata beherapen inten-
toen eta abarren aurkako erantzunak, txit ahulak direla.

Hona hemen hontaz aurkitu ahal izan ditugun datoak:

- 1923an, soldaten % 5eko beherapen orokorra.
- 1926an, Hijos de Victor Aranberri-nean, 1923ko be-
herapenak ezarri gabe zeuden oraindik baina berek
ere berdin egitea erabaki dutela jakin arazten diote
Sindicato Metalurgico-ari. Sindikatu honek, behera-
pena % 4koa izan dadila eskatzen du, zeren eta
“Bizimodua 1923an bezain garestia dago. Eibarren
eta gainera, udaletxeak premiazkoen diren janariei
ezarri dien zerga lotsagarrien erruz, dezente gares-
titu da hilaren haseraz geroztik.”
- “Batzar berberan, Victor Sarasketari, legeak izenda-
tzen dituen ordu extrak, jadanik beteak direla jakin
eraztea erabakitzen da. Ordu hauek, lantegiaren era-
berritze prozesuan bere fabrikapen garrantzitsua gel-
ditu ez zedin, eskatu zituen.”

1927 - Urtarrilean, Victor Sarasketa-nean, jai egiten da la-
runbat eta igandez. Soldatak jaistea lortu ez zuelako
beharbada?

- Martxoan, Gurucelegui Hermanos-enean, soldatak
jeitsi egiten dira eta gainera 14 lagun kaleratuak dira.

- Apirilean, Sarasketa-nean, baskulagile taldeari beste beherapen bat ezartzekotan dira.
 - Irailean, Orbea-nean, 40 urtetik gorako langileak kaleratuak dira. 14 aste beteren barruan.
- 1928 - Azaroa - Pistolagintza alorreko industriek, beren langileek 9 pezeta irabasten dutela eguneko deklaratzeko dute baina batenaz beste, eguneko soldata 6,50 p. dira eta inguruko herrietan, gutxiago oraindik. "La Lucha de Clases"ko berri emaileak dionenez, sal neurriak jeistearen politika daramate ugazabek. Hortarako, material eskaxagoa sartu eta soldatak jaitxi, egiten dute.
- Abendua - Zuzenaren kontrako kaleratzeak, soldata beherapenak eta antzerako ekintzak, aipaturiko berri emaileak dionenez. Victor Sarasketaneko kaxagileek, utzi egiten dute enpresa, miseriazko soldatetara ez makurtze arren.
- 1929 - Otsaila - Norberto Arizmendi-neko langileek, soldata beherapenen kontra irtetzen dute.
- Kontra irtetze hau ez dakigu zenbaterainokoa izango zen, ez bait dugu, aro luze hontan grebarik izan zen berririk. Komite paritarioen aurkako mugimendu puxka bat ikusten da eta SOV, UGT eta katolikoek, elkarren arteko salakuntza ugari dituzte.
- 1929ko Martxoan, Juan de Toyos-ek gai hontaz eman zuen hitzaldi baten, hau zion: "Antolaketa korporatiboari buruzko Errege Dekretuak, nortasun juridiko bat ezarri dio langile erakundeari eta soluziobide bat eman zaio azkenik, ugazabek gure sindikatoa onartzeari ematen zioten ezetz egoskorari". Erakundetara sartzeko aholkatzen die langileei, horrela komite paritarioetara jende prestatua bidali

ahal izateko. Gogor erasotzen ditu sindikato katolikoak, euskal langiledunak etab... "Ugazabekin bat eginik, orain arte amorratuta ukatu digute lege horren aplikapena eta orain ere atzeratzen saiatuko dira".

Lege hori zela eta, izan zuen Solidaridad-ek bere oportunitate haundiena, eta katolikoekin bat eginik, borroka fronte bat aurkeztu zion UGT-ri.

Gainera, 1929. go urte hartan, Gazteiz-go Gotzaigoak, "Secretariado de Acción Sindical" delakoa sortu zuen, Polikarpo Larrañagaren zuzendaritzapean. Handik urtetara, zera zion honek: (3). "Naiz eta nere jarduna erakunde katoliko guztientzat izan, berehala konturatu nintzen Solidaridad zela Idazkaritzaren zerbitzuetaz ongien baliatzen zena. Bitartean, sindikato katolikoek ez zioten erantzun jatorrik ematen gure herriak bizi zuen egoera larri hari".

Urte hartan bertan, Eibarren egin zen, 7.700 elkarte-kide zituen SOV-en lehen batzar orokorra. Goratzaharre bat egin zitzaion Don Poliri eta honoko hau zioen pergamino bat eman zitzaion:

"Herrien zorientasuna, onbidea erakustean badatzan, Don Polik makinatxo bat lan egin du bere erakutsiekin eta hargatik, arrazaren, libertadearen eta Jainkoaren maitale garen euskal langileok, pergamino hau ematen dizugu geure izenpeekin, gure ondorengoentzat adibide eta jende jatorrentzat eredu izan dadin, zeren eta denok nahi dugu, lanean, ohorean eta birtutean oinarritzen den SOV-en ideala lortu."

Batzarraren erabakietatik, hauek ziren inportantee-nak:

(3) El día, 25-IV-1935.

- 8 lan orduko lan egunaren aldeko erabakia.
- Soldata minimoari eta familiarrari buruzko arazoa, Gobernuari egin behar zitzaion eskaera legalen esku utziaz.
- Komite Paritarioei buruz, beren desegitea eskatzen zen, botazio desegoki batzuen fruitu zirela eta, baina langile klasearentzat instituzio egokiak zirela pentsatzen zen, eta defendatu egiten zituen Batzarrak. Identitate kartilla bat eskatzen zen langileentzat, kontrol bat ezartzeko eta profesionalen zensu gisako bat eginaz joateko. (4).

Batzar honen ondoren, sozialistek, Largo Caballero-ren bidez, Sindikal hauteskudetako zensotik SOV baztertua izan zedila eskatu zuten, erakunde hau sindikala baino gehiago, politikoa dela arrazoituz, "bere buruari "euskaldun" izena ematen bait zion". (5).

Eibarko sozialistek udaletxe politikan zer jokabide hartu zuten ikusteko dugu oraindik. 1925.go Abustuan Agrupazio Sozialistaren Batzar Orokorrak, erabaki hauek hartu zituen:

- 1.—Alderdikide zen inork ez zezala kontzejal kargurik onar, egungo egoera politikoak jarraitzen duen arte.
- 2.—Udaletxe autonomiari buruz Agrupazioak duen jarrera azalduko duen agiri bat bidali prentsara, betik horren aldekoak izan zirela jakin araziaz.

1924an Casa del Pueblo-an ospatu zen bilera haundi baten, langile erakundeek beren ordezkariak hautatu zituz-

(4) SAIOAK. *Algunos rasgos importantes de la lucha de clases en Euskadi*. Multikopiatua.

(5) Saioak. Op. cit.

ten, kontzejal korporatibo kargurako, baina Gobernuaren ordezkariak, izen batzuk kendu eta beste batzuk ezarri, zituzten. "Langileek proposatzen zituzten baldintza demokratikoen arauera egin ez zenez gero, Casa del Pueblo-ak eta langile erakundeek ez dute harrez gero udaletxean ordezkariarik euki".

Alkateari zuzenduriko eskutitz bat argitaratu zen eta ezetzaren arrazoitzat, "Kontzejalek ez dute jokatzeko libertaderik, agintarien aginduetara bait daude", ematen du.

Asamblea Consultiva-n parte hartu ala ez eztabaidatzeko, biltzar bat egin zen eta bertan 300 bototik, 22.k ez, beste guztiak, arazo hau erabakitzeke Batzar Orokor bat egin behar zela, epaitu zuten.

Diktaturaren erorketa aurretxoan, argi zeuden eibartarrak. Batzar Orokor baten, Eibarko sozialistek, egoera aldatuz doala eta ezin dela Gobernu ekintzaren zai egon, erabakitzen dute. "Libertatea eta botoa" eskatu behar da eta Espainiari dagokionean, "Libertatea eta Errepublika edo gutxienez, Gorte konstituyenteak".

"Gure iritziz, gure oraingo eginbeharra, gure berotasunak puska baten alde batera utz eta ahalegin guztiak gure helburutara zuzentzea, da. Eginkizun hau, nazional mailako erakunde bat dugunoi dagokigu batipat."

26an, korporatibo sistema gaitzetsi egiten da eta Errepublika ezarria izan dadin proposamena egiteko Errejioko komitean, eskatzen da, Borboiek ez bait dute inolako berrikuntza asmorik agertzen. Giroa, berotzen ari zen Abenduko grebaren aurrean. Greba hontan, ugetistak, solidarioek eta anarkistek bat eginik jokatu zuten.

1931ko udaletxe hauteskudetara batera joan ziren errepublikano eta sozialistak eta bigarren hauek gehiengoa

lortu zuten. 10 sozialistak, 8 errepublikanok eta Nazionalista batek osatzen zuten udaletxea. Apirilaren 14an proklamatatu zen Espaiñian errepublika eta Eibar izan zen lehendabiziko ospatu zuen herria.

VI

ERREPUBLIKAREN PROKLAMAZIOA

Hilaren 14an, asteartez, goizean goiz irten zuen jendeak kalera, errepublika berehala proklamatu behar zen berria jaso bait zen probintziako komite iraultzailearengandik. Aste bete dela hautatuak izan ziren kontzejalak, Casa del Pueblo-an bilera bat euki ondoren udaletxera zuzendu ziren eta borondate nazionalaren ordezkari ziren haiei agintea emateko, eskatu zioten, erregearen aginduz ezarririk zegoen alkateari. Orduan Gobernadore zen Zubiate-rekin hizketatu ondoren, honek udaletxearen agintea eman zien eta berehala, Batzargelan bildu zen udal-etxe berria. "Gutierrez" en irudi bat kendu zen paretatik eta haren ordeiz, Galan eta García Hernandez kapitain ausarten argazki bat zintzilikatu zen. Lehen batzar historiko eta garrantzitsu hartan, errepublika, proklamatzeari erabaki zen eta hiru koloretako ikurriña jaso zen erdiko balkoian. Goizeko zazpiak ingurua izango zen errepublikaren ikurrina jaso zenean eta txalo bero batekin hartu zuen enparantzan betetzen zuen jendetzak. Berrito ere txalo ugari

entzun zen, Juan de los Toyos-ek udaletxeak hartu zuen erabakiaren berri eman zuenean.

Alejandro Telleria alkate izendatu berria, bando bat argitara arazi zuen derrepente. Karguen jabe egitearen eta ordena zainduko zuten hertzainen antolakeraren berri ematen zion herriari eta egunaren haunditasuna ilunduko zuen ekintzarik ez egiteko eskatzen zion jendeari. Esan eta izan, egun historiko hura, baketsua izan zen eta ordena mantentzeko jarriak zuedenak ez zuten batere lanik izan. Birtartean, lanera joan ez zen herri harek, Gobernu Provisional baten ezarpenaz mintzatzen ziren berrietaz hitz egingen zuen.

“Arratsaldeko lauretan iritxi zen berri zorioneko hura eta udaletxe korporazioa berehala bildu zen, batzar ireki bat eginaz, komeni ziren erabakiak hartzeko. Hauek izan ziren delako erabakiak: Alfonso XIII. enparantza, haindik aurrera, Errepublikaren Enparantza deitua izan zedila eta enparantza honetan, Banda Munizipalak, “La Marsellesa”, “Gernikako Arbola” eta “La Internacional” jo zitza. Ondoren manifestazio bat has zedila. Hauez, banda berak dantzaldi kontzertu bat jo zezala Enparantzari. Ekintza guzti hauek, bake eta alaitasunean eramane ziren eta herriak nabarmen agertu zuen bere herritar kultura eta bere kasa gobernatzeko gaitasuna. Hurrengo egunean nazio osoak Errepublika proklamatzearan festa ospatu zuenez, esan genezakegu eibartar gizon eta emakumeek, bi aldiz ospatu dutela”

VII

ONDORIOAK

Ondorio gisan esan genezake, Eibarko sozialismoa herri egoera oso konkreto batetik abiatzen dela. Hasera baten, eskulangintzadun industria atzeratu samar bat dugu, errebindikazio mogimenduekin topo egin gabea eta gremio ondoongo eta tankerako diren elkarte erduekin. Aipaturiko gremio hoietan, langileak eta maila guztietako nagusiak nahasian dabilta eta ez dago klase desberdinen artean etenik.

Bestalde, herria liberal eta errepublikano tradizioduna da. Baina azkenengo hau ez da eragozpen bat sindikal mailan sozialismoarentzat, zeren eta errepublikanoek begi onez ikusten dute langile eta ugazaben arteko nahasketa. Gainera Eibarko liberalismoa, industria sortu berriaren eraginpean dago. O'Donell-en legeak herri guztiari zegozkion "industria irabazi = herri irabazi", berdintasuna ezartzen zuten. Horrela betetzen da langile mugimenduaren lehen aroa, bide tipikoetatik zehar ibiliz, burgesiaren eragin-

pean, jakina. Beraz, nahiz eta sozialismoa indartsu egon Eibarren, lehen aro guztia, lehengo egoeraren arrastoz markatua dago. Kontuan eukitzekoa da beste faktore bat ere: I. Internazionalak euki zuen eragin ahula, hain zuzen. Eta baita, Bilbaon Larogeitamarretik aurrera gertatu ziren grebak, Beaskoetxea etorri aurretik zegoen taldearengan euki zuten ondoriorik eza.

Sozialistak plazaratu zirenean, ez ziren antolakera formak berehala aldatzen hasi baizik eta Armagile Gremioa onartu zuten eta jokabide trebe bat eramanez Kintanane-ko greban. Greba honen arrakastaren arrazoitariko bat, ugazabən jatorri arrotza izan zen (Mexikanoak edo Mexikon kokaturiko euskaldunak). Industriaren "planifikatze" intento bat izan zen bere metodo tipikoak erabiliz: Soldaten beherapena, esku langintzaren desberiztasuna, kanpotik esku lana inportatzean, etab... Istilu hark bitxikeria ugari izan zuen, adibidez, konpetentzia itotzeko asmoz, zenbait ugazabak grebalariei eskaini zien laguntza. Dena dela, ugazabengandik jaso zuten laguntza honek, bideak erraztu zizkien sozialistei, gremioan sartzeko eta gainera, erakunde gisan haiengandik onartuak izateko. Laguntza hau, "Junta local de Reformas Sociales" delakoan erabili zuten adibidez.

Hasera baten badirudi, enpresak bateratzearen eta destajuak kentzearen aldeko jarrerak hartu behar dituztela sozialistek baina atzeraka egiten dute derrepente eta tarifak erregulatzearen eta normaltzearen eta lan orduak laburtzearen aldeko borroketara zuzentzen dira eta ugazaba parte batekin eta errepublikanoekin istilutan hasten. Azkenengo hauei, burgesiaren ordezkari diren salapena egiten diete. Borroka haundienak, armagile Gremioan eta udale-

txe hauteskundetari izan zituzten. Bakoitzak bere jokabideak zehaztea eta bere burua agertzea da, gure iritziz, borroka hauen helburu nagusia. Baina ugazaba eta langileak, nahasian ikusten ditugu eta bi klaseen artean dauden harremanak ikusirik, bien artean dauden bereizketa planteamendu radikalak, hitzezkoak. Ikuspegi zabal bat du Eibarko sozialismoak eta ez klase ikuspegi zorrotz bat. Beste gauza bitxi bat, bere lokalismoa da, "Eibar" kontzeptua gogor defendatzen baita, adibidez, 14 eta 18ko krisi aldietan.

Sozialistek indar gutxi euki zuten Eibar inguruko herri eta baserrietan, nahiz eta ditugun berriek diotenez, Eibarko ugetista gehienak baserriar jatorrikoak izan. Baina baserriarrak urruti ibiltzearen beste arrazoi bat, sakon aztertu ez badugu ere, honoko hau zen. Krisi aldietan, sozialistek baztertu eta kontrolatu egiten zuten baserriar esku lana; baita, udaletxeko kontzejalen bidez, janari garbitasun kontrolak ezartzen zizkietelako. Zenbait garaitan, benetako leihaketak sortzen dira errepublikano eta sozialisten artean, zeinek marmitta gehiago erre kara bota. Arrazoi apur bat euki zaketen —ura botatako esnea, marmitta zikinak etab...— baina baserriar haien egoera aztertzen saiatu ziren berririk ez dugu. Beharbada, egoera hontara bultzatzen zituzten arrazoi batzuk, hauek dira: Karlista gerratetako baserriaren eta hiriaren arteko borroka, euskal baserriarren erlijiosotasuna —sozialistak begi txarrez ikusten zutena—, etab... Behintzat begien bistan dago, Madinabeitiarren eta Meabe-ren "mendietara igo" tzearen aldeko deiak, haizeak eramane zituela.

Ez dugu aztertu, zenbat baserriar jatorridun zeuden afiliaturik UGT-ren eta PSOE-ren Agrupazioan. Horrelako

azterketa batek arazo honi argitasun puxka bat emango liöke.

Berezitasun hauek markatu zuten Eibartar sozialismoaren iehen aroa, sorreratik lehen gerra mundialera arte. Herritar zuzendari koadro batzuk sortzen dira: Barrutia, Amuategi, Baskaran... eta hauek ezarriko zioten sozialismo honi bere lokalismoa. Eibar berezia dela onartzen da nolabait ere. PSOE-ren mitinetan garbi ikusten da, bi mundu berezi baina elkartu hoiien arteko harremana.

Herriko jauntxokeriari kontra egiteko errepublikanoekin euki zituzten harremanak, oso onuragarriak izan ziren alderdi bientzat. Eibarren aurrerakuntza etengabe baten alde borroka egin behar da: lanaren soldaduak sortuko dituen eskola baten alde (1), eibartar liberalismoaren alde. Koperatibismoa jaiotzen da.

Baina azpiko akordio hau, gerraren haserakin leheritzen da. Eskaini onena egiten diotenari ematen diote lana ugazabek eta ez dituzte herriaren interesak zaintzen. Beren zeregin nagusian —lan iturri izatean— huts egiten dute. Aro honek, laburra izan bazen ere, bakoitzak bere planteaketa garbi egin zezan eta beren artean kontradizioak azal zitezten, balio izan zuen. Sozialisten eta errepublikanoen arteko elkarketa desegiten da eta talde bakoitzak bere barnean zatiketak ditu. Errepublikanoen artean planteamendu "antimorenoak" egiten dira, "Gure herrira etorri eta gure

(1) Iraultza industrial orok gairitu behar izan duen problema bat, eskulanaren heziketa da, langilea orduetara eta produziö modu berrietara ohitu arte. Eibarren gauza berbera gertatzen zen Valdour-ek eta beste zenbaiten diotenez. Artesanal eran ohiturik zeuden langile haien arinkeriak aipatzen dituzte. Astelehenetan, ajea pasatzeko pelota saio gogorrak egiten ziren.

interes politiko eta bestelakoen jauntxo egin nahi duten hoién'' kontra. Langile elkarteak defensibara daude, beren bazkideentzat lana erregutuaz etab... Ugazaben elkarte berria, lantegian berek agintzen dutela azpimarkatu beharrean aurkitzen da.

Gerra garaian, etengabeko lana eta aliadozaletasuna kontradizioen isilgarri bihurtu ziren. 1917ko greba bera ere, solidaritate greba bat da eta urrutiko problematzat ikusten da. Berriro ere, ''ugazabek beren eginbeharrak ez dituztela betetzen'' ikusten dugu, zeren eta dirua Eibarko industriak hobea gortzen eta produzio moten aniztasuna sortzen ezarri beharrean, Itsas-ontzigintzara eta elektrika boltsa jokuetara bidaltzen bait zuten.

Bitartean, Eibarko eta beste Euskal Herriko sozialisten harremanak beste tankera bat hartu dute. Eibartarren berezitasuna onartzen da, euskeraren erabilera gatik, batez ere, baina De Drancisco, Prieto etab... hasten dira inziditzen. Perezagua-ren ikuspegiaren ordean, Prieto-ren jarrera moderatua nagusitzen da. Arazo honek zer garrantzi izan ote zuen?.

Hurrengo urteak, bata bestearen gainean datozen gertakizunen artean murgildurik aurkitzen dira: Rusiar iraultza, Bizimoduaren gorapena, Herriko sanidade kondizioen eskastea, errepublikanoekin hausketak, udaletxe hauteskuntetako garaipena, armagintzaren krisialdia, Sindikalgintza, talde berrien eragina, etab...

UGT-a, antolakera moldean aldatu egiten da, Sindicato Metalurgiko bihurtzen baita eta ugazaba elkartearekin topatzen. 1920 greban izan zuten erakunde bi hauek beren indarrak neurtzeko aukera. Greba famatu haren ondorioak zail dira neurtzen. Arazo hauek ziren borroka gai: 8 orduen

gora behera, lantegiaren "zuzendaritza" edo nahiago bada, ugazaba eta langileen arteko harremanak. Sindikatoak zuzendu egin nahi ditu bere eginbeharrak betetzen ez dituzten langileak; Ugazabek berriz, butur sartzen bat ikusten dute...

Sozialista beraiek diotenez, egoera honek eraginik eta aurretiko zenbait esperientziaren laguntzaz sortu zen ALFA kooperatiba. 1920ko eskabideak bidezkoak zirela ugazabei demostratzea eta langileei beren egin beharrak bere kasa betetzen erakustea, zen helburua edo eta sozialismoaren gogoia Eibar guztiari on egitea zela edo eta kapitalismoaren eta sozialismoaren tartean dekretu bat bakarrik zegoela agertzea?.

Alderdiari dagokionez, III. Internazionala zela eta, zatiketa bat sortzen da. Juvendutes-i ikutu zion greba honek baina ez Agrupazioari. Ez dugu anarkisten eta komunisten ekintzei buruzko datorik baina beren sindikato bat sortzeko asmoek ez zutela fruiturik izan, badakigu eta azkenik, UGT-ra sartu ziren.

Primo de Rivera-ren diktatura garaiko egoera, oso berezia da. Alde batetik, gobernu diktatorial orok langile mugimenduengan dituen ondorioak. Bestetik, bai UGT eta bai PSOE irabazle irtetzen dira jokabide radikalagoak dituzten taldeekiko borroketan, nahiz eta jendez urritu.

Hasera baten onartu egiten dira kontzejalgo korporatiboak baina gero, gobernuko ordezkarien azpijokoa ikusiz, atzeraka egiten dute. Diktaturaren aurkako aitorpenak ugarri dira baina komite paritarioetan eta Batzar konsultiboan parte hartzea eskaintzen zaienean, onartu egiten dute.

Langileen bizi maila gero eta txarragoa da baina hala ere, ez zaie frente ematen ugazabei. Eibarko UGT, zeharo

koperatiba arazora murgildurik dago. Itsumen honek, egon ezinak sortzen ditu bere baitan. 1930.aren hasera, UGT-ko elkartekide erdiak baino gehiago, koperatibetan ari dira lanean. Gainera, ugazaba sozialisten problema dago. 1935-ean, 17 ugazaba sozialista zeuden eta danera, 155 langile zituzten, gainera, herriko 32 janaridendatitik, 8 jabe sozialistenak ziren eta baita kafetegi bat, bi taberna eta ehun denda. Lantegidunen artean zeuden: Tellería, alkate sozialista izandakoa, Baskaran, Eibarko sozialismoaren aintzindaria eta udaletxean zenbait kargu eukitakoa, Erkiaga, Markaide, etab... Eibarko sozialismoaren zuzendari izan zirenak. Amuategi bera ere, lantegi baten jabe izan zen.

“Nortasun juridikoa” lortzen arren, SOV-eki bat eginik, eramandako borroka; Alderdiaren eta sindikatoaren arteko nahasmena haunditzea; “Donostiako Hitzarmena” eta abarrek, arazo nazionala lehen mailara dakarte II. errepublika garaian. Prietoren eraginpean zegoen T. Etxeberriaren testo bat kopiatzen dugu eta gure ustez, ederki zehazten du arazo honen aurrean sozialistek zuten jarrera. XIX. mende bukaeran gisako planteamenduak egiten dira, nahiz eta beste era batera esana egin, testo hau 1960 ingurukoa bait da. (2).

“... Gezurra badirudi ere, Eibarko sozialista prozesuan, nahiz eta euki zuen lokalismoa euki eta euskara izan mintzabide arruntena, ez dugu errejionalista ardurarik batera ikusten eta hori, inguru guztian nazionalismoa indartzen zelarik. Honek ez esan nahi folklorea eta tradizioa lantzen ez genituenik.

(2) ECHEVARRIA, T. La experiencia socialista en España... 85-86

Dena del arazo honenganako gure jarrera argia zen. Udaletxe autonomia gogor gordetzen genuen, Gobernadorearen eta Diputazioaren mutur sartzeak uxatzeko, herriaren markoa jotzen bait genuen egokientzat gure sozialista ametsetan. Inguratzen gintuzten errejionalismo eta separatismo radikalenak ere, bere benetako naurrian hartzen jakin behar zen. Herri batek desberdina dela uste baldin badu eta banatzeko benetako gogoia baldin badu, hor konpon Maria Anton. Azken batean sozialismoa, formula sozial bat da eta herri langileak, nahiz estatu haundietan nahiz txikietan errebindikatuko du. Estatu guztiak istilu berberekin aurkituko dira, produzioak eta banaketak izakera sozial bat ez duen bitartean, produzitzaileak, irabazien hartzaile ere ez diren bitartean, halegia, lanik egiten ez dutenak alde batera utziaz jakina.

“Baina guri dagokigun kasu honetan, nahiz eta Euskal Herriko gehiengoaren gogoia besteengandik banatzea izan, praktikan jarri ondoren, sozialistok etnografian, historian eta hizkuntzan oinarrituriko bereizgarritasunean sinisten ez dugunez eta gure espiritua argitu duen Españaren legadoa ez utzi nahiz, Greziarekin bat egitea eskatzen duten greko-txiprioten antzekoak izango ginateke. Eta Horrelaxe gertatuko zen, ezingo genituzke eta, Españak bizi dituen problema nazionalak, historiak nazio osoari planteatzen dizkion eran, ixtant batena ere bizi gabe utz.”

Oso azaletik ikutu ditugu zenbait arazo, erlijioarena adibidez. Arazo hau zail da neurtzen baina dudarik ez eragin haundikoa dela. Bukatzeko Pierre Vilard-ek diona diogu guk ere: “Bizi izandako gertakizunen historia egitea, oso zaila da eta baita, ez bizitako gertakizunena egitea ere. Lehendabiziko kasuan, ikusi eta nahi izan duguna-

ren mende gaude. Bigarrenenan, ezin izaten dugu giroa berregin... arazo honek nere historiagile izakeran kezka larriak sortzen dizkidala aitortu beharrean nago."

AURKIBIDEA

I.	Sarrera.	5
II.	Eibarko langile mugimenduaren hastapenak.	7
III.	Langile mugimenduaren lehen aroa. . . .	13
IV.	14ko krisialditik diktadura arte.	35
V.	Diktaduratik errepublikara arte.	69
VI.	Errepublikaren proklamazioa.	83
VII.	Ondorioak.	85



Euskaraz oso gutti landu den arloa dugu Euskal Historia. Liburu honetan, Juan Ignazio Paul Arzak, historiagile gazteak EIBARKO SOZIALISMOA aztertzen du. Monografia honekin zerbait gehiago jakin genezake Euskal Herriko sozialismoaren hastapenaz eta bidebatez gure herriaren nortasun politikoaz.

Lan interesgarria J. I. Paul Arzakek eskeintzen diguna. Euskaraz gure historia aztertzen dugun ehinean, euskaldunon memoria kolektiboak koherentzia apur bat irabazten duela esan genezake.

